

IRAKURKETA LANTZEKO ORIENTABIDEAK

Lehen Hezkuntza

IRAKURKETA LANTZEKO ORIENTABIDEAK

Lehen Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2013ko azaroa

Ale-kopurua:

500 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Berritzegune Nagusia, ACEX (Eskola Liburutegiak), Eskualdeetako Berritzeguneen Laguntzarekin

Itzulpena:

Berritzegune Nagusia

Diseinua eta maketazioa:

EkipoPO

Inprimaketa:

Imprenta Sacal

AURKIBIDEA

Dokumentuaren xedea	7
Sarrera	9
Irakurketaren garrantzia	9
Zer da irakurketa?	9
Jarduera-ardatzak.....	13
Sarrera.....	13
Ikasteko irakurri	14
Ikastetxea. Ikasgela	14
Ikastetxea. Eskola-liburutegia	30
Familiak eta Ingurua	34
Irakurzaletasuna garatu.....	38
Ikastetxea. Ikasgela	39
Ikastetxea. Eskola-liburutegia	47
Familia eta ingurua	52
Ikastetxeko irakurketa plana egiteko gida	55
Sarrera.....	55
Irakurketa Planaren egitura.....	55
Lanaren antolaketa	56
Faseak	56
Txantiloia	59
Bibliografia gomendatua	63

DOKUMENTUAREN XEDEA

Dokumentu honetan, EAEko ikasleei irakurtzeko gaitasuna modu eraginkorrean garatzen laguntzeko hainbat proposamen bildu ditugu, baita hainbat orientabide ere, ikastetxeek jakin dezaten nola txerta ditzaketen irakurtzen ikasteko eta irakasteko prozesuak eguneroko jardunean. Horrez gain, ikasle, irakasle eta familien egitekoak bideratu eta dinamizatu nahi genituzke, heziketa prozesuaren protagonista guztiek batera lan egin dezaten helburu berak lortze aldera.¹

Hauek dira dokumentuaren helburu nagusiak:

1. Ikastetxeak konturaztea lehentasunezko eginkizuna dela irakurtzeko gaitasuna garatzea, eta familiekin bat eginda lan egin behar dutela horretan.
2. Laguntzea irakurketarekin lotutako irakas jarduerak sistematizatzen eta koherentziaz garatzen.
3. Laguntzea curriculumeko arlo guztietako ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetan irakurketa txertatzen.
4. Orientabideak ematea, ikasleei irakurle konpetenteak izaten laguntzeko.
5. Eragitea eskola-liburutegiak irakurtzeko gaitasuna garatzeko leku dinamikoak izan daitezen.

¹ Azpimarratu egin behar dugu dokumentu hau atalka irakur daitekeela, beraz, irakasleek, banaka nahiz zikloka, euren beharrianen edo interesen arabera aukera dezakete irakurri eta jorratuko duten atala. Dokumentua osorik irakurtzen bada, berriz, ideia batzuk errepikatzen direla antzemango da; izan ere, Irakurketa Plana egiteko funtsezko alderdiak dira, eta argi eta garbi ezarri nahi izan ditugu. Hortik datoz errepikapenak.

SARRERA

“Ni ez naiz naizena idazten dudanagatik, irakurri dudanagatik baino.”

Jorge Luis Borges

Irakurketaren garrantzia

Testuak ulertu eta interpretatzea bizi guztian garatzen den prozesu luze eta konplexua da, eta ikasteko testuinguru formaletan —hezkuntza sisteman— zein ez-formaletan —familian, lagunartean...— gauzatzen da. Eskolari dagokio, ordea, ikasleak irakurle gaituak bihurtzeko prozesuaren gidari izatea.

Tradizioz, irakurketa da ezagutzak eskuratzeko bide nagusia, eta, horregatik da, eskolako lehentasunezko lan esparrua. Egungo gizartean, gainera, hedadura zabalagoa hartzen du informazio- eta komunikazio-teknologiak eragindako iraultzagatik. Izan ere, egun, ikaragarri handia da sortzen eta eskuratzen den informazio kantitatea; eta, gainera, askotariko euskarri, kode, eta bitartekoen bidez transmititzen da. Hori guztia kudeatu beharrak askoz zailago egiten du irakurtzea. Horrez gain, egungo gizartea eleanitza eta kulturantza izateak ugaritu egiten ditu irakurketa-aukerak, eta zabaldu egiten du irakurmenaren ikuspegia.

Aldagai horiengatik, eta berez dituen ezaugarriengatik, askoz trataera konplexuagoa eta sakonagoa behar du irakurketak, alfabetatze orokorrari erantzuteko testuaren deskodetze hutsera mugatu barik.

XXI. mendeko gizartean, informazioaren eta komunikazioaren gizartean, ezinbestekoa da irakurtzeko gaitasuna egoki garatzea; izan ere, behar beste garatu ezik, murritztu egiten baitira bai garapen pertsonala eta profesionala, baita gizartean parte-hartzeko aukerak ere. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan, irakurketa funtsezko tresna da euskara ikasteko eta normaltzeko bideetan; batez ere, gure hizkuntzak presentzia urriagoa duen gizarte-testuinguruetan.

Irakurketak, beraz, lehentasunezko lan-ardatza izan behar du ikastetxean, eta arlo guztiak eta ikastetxeko ekimen guztiak kutsatu behar ditu, **ikasleek eraginkortasunez irakur dezaten hala ikasteko eta eskolan arrakasta izateko, nola aisialdian disfrutatzeko eta, azken finean, gizarte gero eta alfabetatuago honetan garapen osoa lortzeko.**

Zer da irakurketa?

Irakurtzea zer den azaltzen duen kontzepzio zientifikoa aberastu eta aldatu egin da aldaketa sozial, ekonomiko, kultural eta epistemologikoen kariatz. Egun, praktika soziokulturaltzat hartzen da irakurketa, eta, hartara, azpimarratzen da izaera soziala dutela bai irakurlearen ezagutzek eta bai testuaren esanahiek ere. Hala, komunitate bakoitzak modu jakin batean erabili eta egituratzen ditu testuak: gizarte jakin batean eta kultura jakin batean txertatuak baitaude. Eta irakurleak ere bere komunitatetik eta bere kulturatik eraikitzen du testuaren interpretazioa, eta zentzu berezia ematen dio horren arabera.

Beraz, egun, gizarte jardueratzat jotzen da irakurketa; eta, hartara, irakurleak abilezia kognitibo konplexuak, munduaren ezaguera eta hizkuntzari lotutako ezagutzak baliatu behar ditu, testua-

rekin elkarreraginean aritzeko. Horregatik, behar-beharrezkoa da irakurtzen irakasteen oso aintzat hartzea gizarte- dimentsioa eta ikuspegi kritikoa.

PISA 2009 Irakurketa Markoak honela definitzen du irakurtzeko gaitasuna:² (...)helburu pertsonalak erdiesteko, norberaren aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko xedeekin, irakurleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko, haietaz gogoeta egiteko eta haiekin konprometitzeko duen gaitasuna da.”

Definizio horretan, ‘irakurketa’ hitz soilaren ordeaz, **irakurtzeko gaitasuna** kontzeptua aipatzen da. Kontzeptu horren baitan, era askotako ezagutzak, jarrerak eta estrategiak (kognitiboak, linguistikoak, pragmatikoak...) biltzen dira; eta horiek guztiek erabileraren bidez hartzen dute zentzua, askotariko egoeretan aplikatuz eta askotariko helburuei erantzunez.

Ulertzea, erabiltzea eta gogoeta egitea hitzek irakurritakoa zerbaitetarako erabiltzen dela azpimarratzen dute, harekin “zerbait egiten” dela, alegia, eta, irakurri ahala, irakurritakoaren zentzua etengabe berrikusi eta balioesten dela, hau da, xede jakin batekin irakurtzen dela.

Konprometitze hitzak irakurleak irakurketarekiko duen jarrera adierazi nahi du; izan ere, jarrerak zeharo baldintzatzen dute testuarekiko interakzioa eta funtsezkoak dira irakurzaletasuna garatzeko prozesuan.

Testu idatziak, egun, era askotakoak dira:

- Inprimatuak (paperekoak) eta digitalak (ordenadorearen edo beste edozein tresnaren pantaila-koak).
- Jarraituak (informazioa esaldi eta paragrafo jarraituetan antolatua) eta ez-jarraituak (zerrendak, formularioak, grafikoak, diagramak...).
- Multimodalak (hitzak eta irudiak konbinatuz...).

Halaber, ikasleak bizi diren XXI. mendeko gizarte eleanitz eta kulturantz honetan, ohikoa da beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuak irakurtzea, eta faktore horrek areagotu egiten du testuen aniztasuna.

Bestalde,“(...) **helburu pertsonalak erdiesteko, norberaren aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko**” perpausek honako hau azpimarratzen dute: irakurketa balioko tresna dela eskolan arrakasta izateko, norbera maila pertsonalean eta profesionalean garatzeko eta gizarte-bizitzan esku hartzeko.

Irakurtzeko gaitasunaren deskripzio horren arabera, beraz, ikasleek, irakurle konpetenteak izateko, prozesu hauek egiteko gauza izan behar dute:

- Informazioa eskuratu.
- Testua bere osotasunean ulertu.
- Testua interpretatu.

² Pisa 2009. Irakurmena. Markoa eta ebaluazio probak, http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/itemliberatuak/irakurmena2011/irakurmena_PISA2009osorik.pdf.

- Testuaren formari buruzko gogoeta egin eta forma balioetsi.
- Testuaren edukiari buruzko gogoeta egin eta edukia balioetsi.

Informazioa eskuratzea da testuan esplizituki dauden datuak bilatu, aurkitu eta hautatzea irakurketa-xedeari erantzuteko. Ohiko jarduerak dira horiek eskolan nahiz eskolatik kanpo.

Testua bere osotasunean ulertzea da irakurritakoa prozesatzea testuari zentzu betea emanez. Testuaren barne-koherentzia antzeman behar da, esanahi partzialak (esaldiena, paragrafoena...) elkarri lotuz harik eta zentzu orokorra berreraiki arte.

Testua interpretatzea da testuan, edo haren atal batean, esplizituki barik, ezkutaturik dauden ideiak eta informazioak identifikatzea. Prozesu horretan, jarduera kognitibo asko baliatzen dira; lehen mailako eta bigarren mailako ideiak bereizten laguntzen dutenak, kasu.

Testuaren formari zein edukiari buruzko gogoeta egiteko eta haiek balioesteko, irakurlearen ezagutzak eta esperientziak aktibatu, eta testuarekin lotu behar dira. **Edukiari** dagokionez, gogoeta medio, testuak ematen duen informazioa alderatu egin behar da beste iturri batzuetan eskuratutakoarekin. **Forma** balioesteko, berriz, irakurleak testutik urrundu egin behar du, eta testua modu objektiboan aztertu eta hizkuntza kalitatea balioetsi.

Ikuspuntu horretatik, adierazle hauek deskribatzen dituzte irakurle gaituaren ezaugarriak.³

- Askotariko xedeen arabera irakurtzen daki, eta antzematen du irakurketaren xedea.
- Aurretiko ezagutzak erabiltzen ditu irakurgaiari zentzua emateko.
- Lexiko berria antzeman, eta erraz bereganatzen du.
- Hipotesiak egiten ditu irakurgaiak eskain diezaiokeenaz.
- Testua bere osotasunean ulertzeko beharrezkoak diren interpretazioak eta inferentziak egiten ditu.
- Testuko ideien arteko hierarkia ezartzen du.
- Jarrera kritikoa hartzen du, eta iritzia ematen du testuan azaltzen den errealitatearen aurrean.
- Hizkuntza eta forma ezaugarri jakin batzuek testuaren esanahian nolako eragina duten balioesten du.
- Zer ulertzen duen eta ulertzeko zer pauso egin behar dituen kontrolatzen du testua irakurri bitartean.
- Aldiro berrikusten du irakurritakoa, behar bezala ulertu duela egiaztatzeko.
- Estrategia egokiak erabiltzen ditu irakurri bitartean sortzen diren arazoei aurre egiteko.

³Irakurtzeko Gaitasuna Hobetzeko Plana (2010) dokumentutik moldatua. Hezkuntza Saila. Nafarroako Gobernua.

Atal honetan azaldutako guztia kontuan harturik, honako hau baieztatu daiteke: irakurketaren ikaskuntza ez da hasten haurrak testua deskodetzen hasten direnean: askoz lehenago hasten da. Haurrak irakurtzen ikasten hasten dira hizkuntza idatziarekin dituzten lehendabiziko harremanetatik bertatik, hau da, inguruko pertsona helduak irakurtzen ikusten dituztenean, pertsona helduek ipuinak irakurtzen dizkietenean, edota ingurura begiratu eta hitzez, mezuz eta testu idatziz jositako munduari erreparatzen diotenean. Horrek guztiak kognizio-maila handiko prozedurak garatzen laguntzen die haurrei: hipotesiak eta iragarpenak egitea, kasu.

Era berean, prozesua ez da bukatzen kode idatzia bereganatzen dutenean; izan ere, irakurtzeko gaitasuna etengabe garatzen da: neskak eta mutilak era askotako testu motak irakurri, eta askotariko komunikazio-egoera esanguratsuei erantzuten dieten bakoitzean.

Horregatik, irakurtzeko gaitasuna ahalik eta gehien garatzeko, hezkuntza-arloari eta arlo pertsonalari lotutako ekimenak eta jarduerak planifikatu eta abiarazi behar dira ikastetxean; eta ikastetxea, familiak eta ingurua, denak, inplikatu behar dira egiteko horretan.

JARDUERA ARDATZAK

Sarrera


Dokumentu hau bi jarduera-ardatz nagusiren inguruan egituratu dugu, hezkuntza-arloan irakurketak dituen bi helburu nagusietan oinarrituta:

- **Ikasteko irakurri**
- **Irakurzaletasuna garatu**

Sailkapen hori baliagarria da hezkuntza-arloan, argi dago; hala ere, bi xede horiek gurutzatu egiten dira sarritan, muga lausoak baitituzte. Izan ere, irakurzaletasunak bultzatu egiten du ezagutza sortzeko, ikasteko eta ikasitakoa partekatzeko egiten den irakurketa. Era berean, ikasteko xedearekin zenbat eta gehiago eta hobeto irakurri, orduan eta errazago sustatuko da irakurzaletasuna.

Ardatz horiek garatzen laguntzeko orientabideak, ekimenak eta adibideak daude bilduta dokumentu honetan, bi testuinguru hauek kontuan izanik:

- **Ikastetxea: ikasgela eta liburutegia**
- **Familia eta ingurua**



Ikastetxea, arrazoi asko tarteko, funtsezko eragilea da irakurtzeko gaitasuna garatzeko: alde batetik, Haur Hezkuntzan hasita 16 urtera bitartean herritar guztien oinarrizko heziketaz arduratzen den erakundea da; beste alde batetik, norbanakoa garatzeko eta gizarteratzeko bidea eskaintzen du; eta, azkenik, eskola berariazko ikaskuntza eremua da, eta, hortaz, irakurtzeko gaitasuna behar-beharrezko tresna da bertan.

Bestalde, ikastetxearen barruan, liburutegia dago; eta bertan informazio baliabide asko daude bilduta, hainbat euskarritan (paperean, ikus-entzunezkoak, digitalak...). Ikasleek eurengandik eta euren interesetatik hurbil sentitu behar dute; izan ere, liburutegia egoki erabiltzeak, batetik,

irakurzaletasuna bultzatzen du —eta, bereziki, literaturara hurbiltzeko aukera bikaina da—; eta, bestetik, erraztu egiten du bai mota guztietako ezagutzak eskuratzea, baita parekoen arteko interakzioa ere. Beraz, irakurketaren inguruko lan partekatuari buruz ikastetxean hartu behar diren erabakietan, funtsezkoak dira liburutegia dinamizatzeko erari dagozkionak, gune esanguratsu eta motibagarri bihurtu behar baitugu eskola-elkarteko kide guztientzat.

Inguruneke kulturaren aberastasunak eta familiaren babesak lagundu egiten diete ikasleei eskolan arrakasta izaten. Beraz, ikasleen irakurtzeko gaitasuna hobetzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin ikastetxean egiten diren ekimen guztiak familiengana helarazi eta ingurura eraman behar dira. Eta, horrez gain, ikastetxera ekarri behar dira inguruko proposamen guztiak, betiere bertako egoera soziolinguistikoa kontuan harturik.

Ikasteko irakurri

“Ikasteko irakurri” ardatzak ikuspuntu hau azpimarratzen du: ezagutza garatzeko eta ikasteko, funtsezko baliabidea da irakurketa, eskola esparruan nahiz eskolatik kanpo; izan ere, irakurtzen jakiteak eskola-arrakasta ezinbestean bermatzen ez badu ere, irakurtzeko gaitasuna behar bezala garatuta ez izatea eskola-porrotaren arrazoietakoa bat da eta norbanakoaren garapen kognitiborako oztopo.

Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren Diagnostiko Ebaluazioko proben eta irakurtzeko gaitasuna ebaluatzeko nazioarteko proben (PISA) emaitzek erakutsi dutenez, irakurtzeko gaitasunaren maila oso lotuta dago eskolan porrota edo arrakasta izatearekin. Gainera, behin derrigorrezko eskolatzea eta derrigorrezkoaren ondoko eskolatzea bukatu ondoren ere, mota guztietako eta edozein euskarritako testuak irakurtzeko gai izatea ezinbestekoa da jakintza eskuratzeko eta transmititzeko.

Esandakoa kontuan hartuta, ikasle guztiak irakurle gaituak izan daitezen, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ere, modu sistematikoan landu behar da irakurtzeko gaitasuna, arlo, ziko eta ikasmaila guztietan, eta aurrez antolatutako eta planifikatutako jardueren bidez. Bestalde, ez ditugu ahaztu behar irakurtzeko zailtasunak izan, eta berariazko laguntza behar duten ikasleak.

Jarduera-ardatz honetan, ikasteko irakurketa garatzeko orientabideak, ekimenak eta adibideak aurkezten ditugu, bi testuinguru hauetarako lagungarriak izan daitezkeenak:

- **Ikastetxea: ikasgela eta liburutegia**
- **Familia eta ingurua**

Ikastetxea. Ikasgela

Ikastetxeari dagokio, bete-betean, irakurtzeko gaitasuna garatzeko lanaren erantzukizuna, eta bertako estamentu guztiek hartu behar dute parte zeregin horretan, zeinek bere jarduera-esparruan (Eskola Kontseilua, zuzendaritza, klaustroa...). Hala ezartzen du indarreko curriculum markoak, Oinarrizko Gaitasunak eta, zehazki, Hizkuntza-komunikaziorako Gaitasuna garatzeko.

Irakurtzeko gaitasuna garatzeko hartzen diren erabaki guztiak eta abiarazten diren ekimen guztiak **irakaskuntzaren gaineko gogoetan oinarritu behar dira, eta bat etorri behar dute ikastetxearen planteamendu orokorrekin**. Horren ondorioz, ikastetxeko dokumentuetan jaso behar dira (Hizkuntza Proiektua, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua, Hobekuntza Plana, Curriculum Proiektua, arloen programazioak...), bai eta ikastetxean bultzatzen diren berrikuntza edo prestakuntza proiektuetan ere.

Dokumentu honen sarreran irakurketaren kontzepzioaz azaldutakoaren arabera, modu eraginkorrean irakurtzeko, **irakurketaren hiru faseei** lotutako estrategiak garatu eta landu behar dira. Hirurak oso kontuan hartu behar dira ikasgelan, eta modu koherentean eta planifikatuan landu arlo guztietan. Hauek dira irakurketa-prozesuaren hiru faseak:

1. Irakurri aurretik

- Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.
- Testuak esanahiaren aldetik eskain dezakeenaren inguruko hipotesiak eta jakin-mina lantzea.
- Aurretiko ezagutzak aktibatzea.
- Iragarpenak eta hipotesiak adieraztea.

2. Irakurri bitartean

- Hipotesiak etengabe egin eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Testua irakurri ahala sortzen diren zalantzak argitzea.
- Irakurri ahala, atalen edukia laburbiltzea.

3. Irakurri ondoren

- Irakurritakoa laburpenen, eskemen eta buru-mapen bidez berrantolatzea.
- Irakurritakoa berrerabiltzea, eta ezagutza berria eraikitzea.

Irakurketa-prozesuaren edozein fasetan izan daitezke testua ulertzeko oztopoak; eta, hartara, **funtsezkoa izango da ikasleei dagokion laguntza ematea kasu bakoitzean**. Irakurri aurretik, esaterako, gerta liteke ikasleek testuaren edukiari buruzko aurretiko ezagutzarik ez izatea, edo ez jakitea testua bere konplexutasun guztian ulertzeko adina; hortaz, alderdi jakin batzuetan, sakondu egin beharko da, eta informazio osagarria eman. Irakurri bitartean, berriz, zenbait hitz ezezagunek eragotzi egin dezakete testua behar bezala ulertzea; eta, beraz, azaldu egin beharko dira. Irakurri ondorengo fasean, azkenik, irakurlea irakurritakoa eskema koherente batean antolatzeko gauza ez bada, berriro irakurri beharko da testua, eta koherentzia ematen dioten elementuei erreparatu.

Ulermen jarduerak **estu lotuta daude trebetasun kognitibo-linguistikoei** —ikasteko behar-beharrezkoak—. Izan ere, honako hauek egiteko irakurtzen dugu:

- Gertaerak, fenomenoak, objektuak, pertsonak... deskribatzeko.
- Eskolako arloetan erabili behar diren hitzak definitzeko.
- Gertaera eta aldi historikoak, fenomenoak, izaki bizidunak... sailkatzeko.
- Teoriak, prozesuak, gertakariak... laburtzeko.
- Iritziak, ondorioak eta emaitzak justifikatzeko eta argudiatzeko.
- Teoriak egiaztatzeko.
- Kontatzeko.
- Azaltzeko...

Kontuan izan behar da, halaber, **idatzitakoaren gaineko ulermen jarduerak eta beste hizkuntza-trebetasunak elkarri lotuta daudela**, eta, beraz, batzuek besteei eragiten dietela: irakurri egiten da idatzeko, irakurri egiten da irakurritakoaz besteei hitz egiteko, irakurri egiten da ahozko azalpenak prestatzeko...

Irakurketa-jarduerak, beraz, ez dira isolaturik proposatu behar, baizik eta **zentzua eta esanahia emango dien testuinguru baten baitan, eta sekuentzia didaktiko konplexuagoetan txertatuta**. Esaterako, Ingurunearen Ezaguera arloko proiektuetan, ikasleek informazio-testuak edo jarraibideak irakurriko dituzte, eta informazioa laburtzeko jarduerak egin. Tutoretza saioetan, adibidez, elkarbizitzari buruzko mahai-ingurua proposatuz gero, ikasleek, lehendabizi, informazioa bilatuko dute eta hura hautatzeko, interpretatzeko edota beste informazio batzuekin alderatzeko jarduerak egingo dituzte.

Irakurketa-prozesuaren hiru faseak –irakurri aurrekoa, irakurri bitartekoa eta irakurri ondorengoa– **kontuan hartzen dituzten jarduerak proposatu behar dira**, betiere sekuentzia didaktikoetan txertatuak. Hala, irakurri aurretik, irakurgaiaren izenburuak zer iradokitzen dien galdetu ahal zaie ikasleei, eta, hortik abiatuta, testuaren gaiak edo edukiaz galdetu, eta hipotesiak eginarazi. Hartara, irakurgaiaren inguruko aurre-ezagutzak aktibatuko dituzte, eta horrek testua ulertzen lagunduko die. Testua paragrafokak irakurtzeak eta ikasleek elkarrekin hitz egin eta irakurritakoaren gaineko iritziak bateratzeak lagun dezake ulermen arazoak detektatzen testua amaitu aurretik. Azkenik, irakurketaren bidez eskuratutako ezagutza beste jarduerak batean erabiltzeak lagunduko du testua behar bezala ulertu den ala ez egiaztatzen.

Irakasleak eredu eta aholkulari gisa jardun behar du, eta irakurketa-prozesuaren hiru faseetan **gidari izan**, ikasleei lagunduz, zuzenduz eta jarraibideak emanez. Prozesu honetan, beraz, ezinbestekoa da irakasleak galderak eginez ikasleak gidatzea haiei testua ulertzen laguntzeko.⁴

Ikasleak **motibatu eta parte hartzera bultzatuko** dituzten ulermen jarduerak planteatu behar ditu irakasleak, eta **jarduera horien helburua eta zentzua azaldu**.

Ulermen jarduerak, halaber, **ikasleen arteko harremanak eta parekoen arteko elkarriketa bultzatu behar dituzte**, testuaren esanahia elkarrekin eraikitzeko. Beraz, ez da komeni banaka eta isilik burutu behar diren jarduerak gisa planteatzea, askotan egin ohi den bezala.

⁴SÁNCHEZ MIGUEL, E. (2010): *La lectura en el aula*. Crítica y Fundamentos 27, GRAÓ. Bartzelona.

Irakurtzeko gaitasuna garatzeko, irakasleak, **hasiera batean**, behintzat, oso **jarduera gidatuak** diseinatu beharko ditu, ikasleak, pixkanaka, gero eta autonomia handiagoarekin irakurtzeko gai izan arte; ahaztu gabe, badirela prozesu horretan laguntza handiagoa behar duten ikasleak.

Ikasleek, gelan ez ezik beste toki batzuetan ere irakurtzen dute, hala nola liburutegian, laborategian, erabilera anitzeko gelan, informatika gelan... Beraz, irakurtzeko gaitasuna garatzeko proposamenak toki horietara ere heldu behar dira. Horretarako, era malguan eta dinamikoan antolatu behar da espazioa.

Denbora antolatzeke moduari dagokionez, berriz, indarrean dagoen Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum Dekretuak zehaztutakoa martxan jartzeko erabakiak hartu behar dira, eta programazioetan adierazi. Honako hau dio Dekretuak: "Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko eta komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Ikastetxeek arlo guztien hezkuntza-jardueran bermatu behar dute irakurketari eskainitako denbora, maila guztietan."⁵ Lehen Hezkuntzarako gehiago zehazten da irakurketari eskaini beharreko denbora hori: "Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxeek, hezkuntza jarduera antolatzeke orduan, egunean gutxienez hogeita hamar minutuko irakurketa-denbora sartu beharko dute, etapako maila guztietan" (10. artikulua, 5. atala).

Irakatsi egin behar zaie **ikasleei eskola-eremuko testuak** ulertzen eta interpretatzen, bai eta gizarte-eremuan eta garapen pertsonalean lagungarri izango zaizkien beste guztiak erabiltzen ere.

Hartara, ezinbestekoa da ikastetxeko departamentu guztiek zeinek bere arloari lotutako **testu-bankua** osatzea. Banku horretan, **testu errealak** bildu behar dira eta **askotarikoak** izan behar dute bai testu-tipoari (narrazioa, azalpena, argudioa...), bai testu-generoari (albisteak, kontakizunak, eleberriak, biografiak, artikulua, erreportajeak...), bai euskarriari, bai erabilpen-eremuari (hedabideetakoak, literatura arlokoak...) eta bai erabilitako hizkuntzei dagokienez; testu jarraituak eta, ez-jarraituak (mapak, grafikoak...) izan behar ditu, gainera, testu-bankuak; eta ahal izanik, ikasleen intereseko testuak erabiliko dira.


Testu-bankuak, halaber, **erantzuna eman behar die ikasteko eta irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei**, eta bakoitzari behar dituen baliabideak eskaini: braille testuak, testu egokituak...

Era berean, **hainbat hizkuntzatan** idatzitako testuak eduki behar ditu, ikastetxean erabiltzen diren eta ikasten diren hizkuntzetan, bai eta inguruan eta familietan erabiltzen diren hizkuntzetan ere. Bilduma horretan, lehentasuna izan behar dute gizartean presentzia txikiagoa duen hizkuntza ofizialean idatzitako testuek.

Testu aniztasunari dagokionez, aipamen berezia merezi dute **testu digitalek**; izan ere, izugarri hazi da horien erabilera eta gero eta gehiago haziko da giza jardueraren eremu guztietan: ikaskuntzan, pertsonen arteko harremanetan, lan-eremuan...

Testu inprimatuak eta testu digitalak irakurtzeko behar diren trebetasun asko berdinak dira. Testu digitalek, baina, **berariazko abileziak lantzea** eskatzen dute; izan ere, beste testu batzuetara eramaten gaituzten hipertextuak izan ohi dira.

⁵ Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum-aren Dekretua. Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Saila. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>



Hala, abilezia bereziak landu behar dira informazioa eskuratzeko moduari dagokionez, testuaren ideiak elkarrekin uztartu eta esanahia eraikitzeko moduari dagokionez, bai eta edukiaren fidagarritasuna balioesteko moduari dagokienez ere.

Testu analogikoen egitura linealaren aldean, **testu digitalen egitura zuhaitz egitura da**: adar asko ditu. Beraz, irakurleak hainbat ibilbide eta aukera topatzen ditu. Horregatik, irakasleak lagundu egin behar die trebatu gabeko irakurleei irakurketa-xedea zehazten, eta xede horren arabera irakur-ibilbidea erabakitzen. Hartara, beharrezkoa da testu digitaletan informazioa antolatzen laguntzen duten aurkibideak aztertzea: nabigazio-menua, ikurak, barneko bilatzaileak, webgunearen mapa...

Internet etengabe gaurkotzen den **liburutegi digitala da**; eta oso tresna lagungarria, irakurgaiak bilatzeko eta hautatzeko. Horregatik, komeni da hainbat hizkuntzatan idatzitako kalitatezko testu digitaletara jotzeko aukera ematen duten webguneen eta orrialdeen bilduma edukitzea.


Bestalde, egun, gero eta gehiago erabiltzen dira **testu multimodalak**, hau da, mezuak sortu eta jasotzeko kode bat baino gehiago (hizkuntzazkoak, ikus-entzunezkoak) erabiltzen dituzten testuak eta tresna digitalak. Horrenbestez, alfabetatzea eta irakurtzeko gaitasuna kontzeptuak zabaltzera behartzen gaituzte.

Testu horietan, askoz eginkizun aktiboagoa du irakurleak; izan ere, mezu konplexu bat -bi kode edo gehiago dituen- deskodetu behar du. Hala, esanahi orokorrak eraiki ahal izateko, osagaien zentzua antzeman behar du (irudiena, soinuena, testuena), eta haien arteko erlazioak ezarri.

Ekimenak eta jarduerak

Ikastetxean, irakurtzeko gaitasuna hobetzeko ekimenak modu isolatuan, banakako planteamendu gisa, planifikatu eta egin daitezke; baina ikastetxeko kide guztien lan koordinatuak eta kohesionatuak baino ez du bermatzen haren garapen egokia.

Jarraian proposatzen diren ekimenak eta jarduerak ikastetxeko irakasle guztientzat dira. Irakasleek, elkarrekin koordinatuta, ekimen eta jarduera egokiak hautatu behar dituzte: beren berariazko lan-ibilbidea diseinatu behar dute ikastetxearen ezaugarriei egokitua; eta erabaki horiek guztiak plan batean jaso behar dituzte. Irakurketa plan hori aldiro berrikusi eta berregokituko da ikasleek irakurtzeko gaitasunean duten hobekuntza ebaluatu ondoren. Ekimenak eta jarduerak hiru bloke handitan antolatuta daude, eta elkarri loturik:



Gogoeta egin irakurtzeko gaitasunaren inguruan

- Prestakuntza saioak antolatu irakurtzeko gaitasunak eta gaitasun horren garapenak arlo guztietan duen garrantziaren inguruan.
- Oinarrizko bibliografia bildu irakurtzeko gaitasunaren inguruan, eta modu dialogikoan irakurri koordinazio-bileretan.

Oinarrizko bibliografia

- *Irakurketa-estrategiak eskolan lantzen; Irakurle konpetenteak lortze aldera*, G. Lasarte.
- *Zertarako Irakurri? Ulertzeko*, V. Moreno.
- *Ulermenezko irakurketa eta eskola testuak*, A. Sanz Moreno.
- *10 claves para enseñar a comprender*, E. Vidal-Abarca.
- *Ocho preguntas en torno a la lectura y ocho respuestas no tan evidentes*, I. Solé.
- *Comprender antes de leer*, Kepa Osoro.
- *Comprender durante la lectura*, Kepa Osoro.
- *Comprensión después de la lectura*, Kepa Osoro.

Bibliografia. Zenbait iradokizun.

- Arlo guztietan egiten diren irakurketa-jarduerak aztertu, gabeziak eta beharrianak antzemateko.

Irakurriaren ulermena: sekuentzia didaktikoaren jardueren analisia

- Badago idatzitakoaren ulermena lantzeko jarduerarik?
- Proposatzen da ulermen jarduerarik hainbat iturritatik jasotako informazioa lantzeko?
- Lantzen da ulermen-prozesua (irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren)?
- Askotariko xedeei erantzuten diete irakurketa-jarduerak?
- Badago testuen ulerkuntza orokorra lantzeko jarduerarik?
- Badago testuen interpretazioa lantzeko jarduerarik?
- Badago errefortzu edo laguntza jarduerarik?
- Zer estrategia proposatzen da ikasleen ulermen-maila ebaluatzeko?

Ulermen jarduerak aztertzeko txantiloia

- Irakurtzeko gaitasuna hobetzeko estrategia eta praktika onak arlo guztietan identifikatu.

Irakurketaren irakaskuntza: analisia

- Irakurketaren hiru faseak lantzen dira ikasgaiari dagozkion testuetan.
- Ulertzeko arazoak konpontzeko laguntza ematen da.
- Irakurriaren ulermena ikasgai guztietan ebaluatzen da, ebaluazio-irizpide eta -adierazle zehatzen bidez.
- Errefortzu- eta laguntza-jarduerak proposatzen dira zailtasunak dituzten ikasleentzat.

Irakurketari lotutako helburu egokituak

Irakurketaren inguruko erabakiak adostu eta programatu

- Arloen helburuetan, irakurketari lotutakoak hautatu eta dagokion zikloaren eta ikasmailaren arabera egokitu.
- Berraztertu arloaren ebaluazio-irizpideak; adostu irakurtzeko gaitasunari lotutako ebaluazio-adierazleak eta programazioan txertatu.

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera

<i>Arloaren helburu orokorrak</i>	<i>2. zikloko helburu orokorrak</i>	<i>Sekuentziaren helburu didaktikoak</i>
Informazioa lortzeko eta eza-gutza trukatzeko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea; haien eragina aztertzea, eta pertsonen eta haien ingurunearen ezaugarriak hobetzeko ematen duen laguntza balioes-tea, zenbait giza behar asetzen laguntzeko.	Aurretik zehaztutako gertakari edo fenomeno nabarmenei buruzko informazioa lortzea eta gertakari natural edo sozialei buruzko aurreikuspenak egitea, oinarritzko iturrietatik (ingurua, liburuak, Internet...) abiatuta egindako behaketa zuzenetik eta zeharkakotik lortutako datuak bilduz; lortutako emaitzak ezagutzera ematea, hainbat euskarri erabiliz.	Informazioa biltzea, gure planetako energia iturri nagusienak ezagutzeko eta beraien erabilpen arduratsua baloratzeko. Energia lortzeak, garraiatzeak eta erabiltzeak sortzen duten arazoei buruzko ahazko aurkezpen bat egitea. Energia aurrezteko egin beharreko ahaleginaren gainean hausnartzea.


Irakurketari lotutako helburu egokituak

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera: 2. zikloa

<i>Ebaluatzeko irizpideak</i>	<i>Adierazleak</i>
10. Aurretik zehaztutako gertakari edo fenomeno nabarmenei buruzko informazioa lortzea eta gertakari natural edo sozialei buruzko aurreikuspenak egitea, oinarritzko iturrietatik (ingurua, liburuak, Internet...) abiatuta egindako behaketa zuzenetik eta zeharkakotik lortutako datuak bilduz; lortutako emaitzak ezagutzera ematea, hainbat euskarri erabiliz.	Ea txostenak eta galdetegiak egiten dituen jarraibideak errespetatuz; eta ea datuak ezaugarrien arabera banatuta jasotzen dituen eta esperimientuen behaketatik abiatuta egiten dituen aurreikuspenak. Ea erantzukizunez aritzen den ikasgelan, taldeko zereginetan, erabakiak hartuz, iritzia emanez eta gainerakoenak errespetatuz. Ea ekimenik eta sormenik ageri duen ikerketa-lanak egiteko. Ea sentsibilizatuta dagoen hedabideek iritzia sortzeko duten eraginarekin, batez ere publizitatearen eta kontsumoaren bidez. Ea eraginkortasunez biltzen duen informazioa ikastetxeko liburutegitik eta Internetetik. Ea elkarrizketarik planifikatzen eta egiten duen hainbat erakunde, gizarte-talde, lan eta lanbideren funtzionamenduari buruzko informazioa lortzeko. Ea azterlan egokiak egiten dituen, eta ea hainbat euskarriren bidez jakinarazten dituen lortutako emaitzak (ahoz, idatziz, birtarteko digitalen bidez...), irudien, taulen, grafikoen, eskemen eta bestelako birtarteko batzuez lagunduta eta ikasitako hitz espezifikak erabiliz.

Irakurketari lotutako ebaluazio-adierazleak

- Askotariko ebaluazio-tresnak erabili (kontrol-orriak, autoebaluazio eta koebaluazio txantiloak...) irakurtzeko gaitasuna balioesteko.



- Zerbait ekoiztea helburu duten lan-proiektuak programatu: testuak irakurtzea eta ulermena lantzeko berriazko jarduerak egitea eskatzen duten proiektuak, hain zuzen ere.
- Ikasgaien programazioetan, denbora bat ezarri ikasgaiari dagozkion dibulgazio-testuak eta testu osagarriak irakurtzeko: artikulua, entziklopediak, gaikako webguneak...
- Irakurtzeko gaitasunaren inguruan hartzen diren erabaki guztiak dokumentu bakar batean jaso. Hala, erabaki horiek ebaluatu eta berrikusi ahal izango dira.

Irakurketa-jarduerak eta -proiektuak proposatu irakasgai guztietan

- Irakurketa-jarduerekin osatu ikasgaietako material didaktikoak, hala behar izanez gero.
- Ugaritu ikasgelan erabiltzen diren informazio iturriak (hedabideak, webguneak, orrialde digitalak, testu-liburuak, entziklopediak...), irakurketa kritikoa sustatzeko:
 - Egiaztatu ikasgaia lantzeko erabiltzen diren irakurgaien gaurkotasuna.
 - Laguntza-sistemak erabili, hala behar izanez gero, ikasle guztiek aukera berdina izan ditzaten informazio-iturrietara jotzeko.
 - Testu-tipoari dagokionez (narratioak, azalpenak, argudioak...) eta testu-generoari dagokionez (albisteak, gutunak, biografiak, erreportajeak, jarraibideak, kronikak...) askotariko ulermen jarduerak proposatu. Testu horiek erabilera-eremu desberdinetakoak (ikaskuntza, erakundeak, pertsonen arteko harremanak, literatura, hedabideak...) izan behar dute, eta era askotako euskarrietan proposatu behar dira.

Deskripzio-testuak	Argudio-testuak	Azalpen-testuak	Narrazio-testuak
Deskripzio zientifikoa Definizioa Eskema ...	Iritzi-artikulua Zuzendariari gutuna Argudio zientifikoa Prensa-eztabaida Testu-iruzkina ...	Hiztegia Azalpen didaktikoa Monografia Erreseina Dekalogo Dibulgazio-artikulua Entziklopedia-artikulua ...	Komikia Biografia Kondaira Alegiak Kontakizun laburra Eleberri historikoa ...

Testu-tipoak eta testu-generoak

- Beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuak txertatu, ikasleek bai modu autonomoan, bai irakasleak lagunduta irakur ditzaketena, ulermen-estrategiak garatze aldera.
- Jarrera positiboak sustatu ikasleek senti dezaten beharrezkoa dela beste hizkuntza batean, beste hizkuntza-erregistro batean edo beste euskalki batean idatzitako testuak ulertzea.
- Saihestu testuingururik gabeko jarduerak, eta sekuentzia didaktikoetan edo proiektuetan txertatu irakurketa-jarduerak.

0 Lan-sekuentzia: Proiektua Irudikatzen
1. Lan-sekuentzia: Informazio bila • 1. jarduera: Informazioa irakurri. • 2. jarduera: Informazioa kontzeptu mapa batean antolatu.. • 3. jarduera: Informazioa elkartrukatu.
2. Lan-sekuentzia: Makina sinpleak • 4. jarduera: ikasitakoari buruzko gogoeta. • 5. jarduera: instrukzio testu bat irakurri.
3. Lan-sekuentzia: Testua ezagutzen • 6. jarduera: testu motak bereiztu. • 7. jarduera: instrukzio testua aztertu.
4. Lan-sekuentzia: Instrukzio testua idazten • 8. jarduera: instrukzio testuaren zirriborroa idatzi eta zuzendu. • 9. jarduera: testua aurkeztu.

Irakurketa-jarduerak sekuentzia didaktiko batean txertatuak

- Sekuentzia didaktikoetan txertatuko irakurketa-jarduerak irakurketa prozesuaren hastapenetan ere proposa daitezke. Esaterako, ikasleei informazioa bilatzeko eska dakieke, eskola saioetan jorratzen ari diren gai baten inguruko zalantzak argitzeko.

Lehenengo aldia		
Bigarren aldia*		
Hirugarren aldia		
Orientabideak	Ekimenaren deskribapena	
2. aldia: Ikerketa: Zer jakin nahi dute? Non ikertu? Informazio iturriak		
Hiru urteko gelaren helburu nagusietako bat ahozkoaren garapena da; beraz, ikasleei aukera anitzak eskaini behar zaizkie azalpenak emateko, galdetzeko, entzuteko... Animaliei buruz zer jakin nahi duten galdetuko diegu. Sailkapenak egiteko zailtasunak dituzte, beraz, jarduera bideratzeko ezinbestekoa da irakaslearen laguntza.	3 urteko gela. A taldeaA a. Elkarriketa gidatua. Txakurra eta oiloari buruz zer jakin nahi duten galdetuko diegu. b. Euren erantzunetatik abiatuta, bost kategoría egingo ditugu.	3 urteko gela. B taldea a. Elkarriketa formala. Ahatea eta zaldiari buruz zer jakin nahi duten galdetuko diegu. Ikasleek banaka erantzungo dute eta euren erantzunak jasoko ditugu. b. Erantzunekin bost kategoría egingo ditugu.
Hiru urteko haurrak gauza berri asko deskubritzen ari dira. Euren inguruan dagoenaz jabetu daitezten eta informazioa antolatzen eta sailkatzen ikas dezaten lagundu behar diegu.	3 urteko gela. A taldea a. Elkarriketa, haurrek informazio iturrien inguruan zer dakiten jakiteko. b. Ikerketa txokoa antolatu. Bertan, kartelak eta haurrek ekarriko dituzten liburuak eta bestelako materialak jarriko ditugu. c. Kategoriak banatuko ditugu.	3 urteko gela. B taldea a. Elkarriketa gidatua ahate eta zaldiei buruz gehiago jakiteko eta zer egin dezakegun erabakitzeko. b. Familiei kolaborazioa eskatu, planteatutako galderei erantzuteko.

*http://docentes.leer.es/wpcontent/uploads/web_librosanimales/EI_3/gallina_perro_pato_caballo_fase2.htm- tik hartua eta euskaraz moldatua.

- Irakurketa-jarduerak proposatu ikaskuntzari lotutako era askotako helburuak lortzeko: datu zehatzak eskuratzeko, informazioa ordenatzeko, interpretatzeko, prozesuren bat ezagutzeko, ideien bat balioesteko... Betiere testuak ematen dituen aukera guztiak xahutu gabe.



Venezia, otsailak 22

Kaixo, zer moduz?

Gu oto ondo ari gara pasatzen ezkonbidaian. Aste
bete daramagu Italian eta agindu nizuen bezala,
postala bidaltzen dugu.

Orain arlo zorte ona izan dago eguraldiarekin, eguzki
ederra agian gurtietan.

Gaur iritxi gara hiri zoragarri honetara eta orain
San Marco plazan gaude. Benetan, ikusgarria da!
Gondolaz pasatzen ibili gara pabudaz —heren ez
dago autorki!— alderdi guztiak ikusten: kanalak,
zubiak, etxak, plazak, jaseriak...

Laster bukatuko zaigu sporraldia eta zortzi egun barru
bustetako natz.

Ordura arte, agur eta mizu bana.

Anderuñe Arantxa



**MENDIBEHEKO
IKASTETXEA**
(4. B taldeko ikasleentzat)
Pagoeta kalea, 7
48300 GERNIKA
BIZKAIA
ESPAÑA

Irakurketaren xedea	Ulermena egiaztatzeko irakurketa xedeari lotu- tako galderak (atala)
Testuaren igorlea antzematea	Nork idatzi du postala? a. Markosek. b. Adibide batek. c. Arantxa andereñoak. d. Italiako neska-mutiek.
Informazioa identifikatzea	Non dago andereño Arantxa? a. Gernikan. b. Gondola batean. c. Veneziako San Marcos Plazan. d. Italiako hiri miragarri batean, Pagoeta kalean.
	Noiz bidali du postala? a. Ez du zehazten. b. Otsailaren 22an. c. Italiara iritsi bezain pronto. d. Italiara iritsi eta hilabete beranduago.

Idatzizkoaren ulermena ebaluatzeko proba. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna euskaraz.
Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ebaluazio Diagnostikoa, 2009

- Irakurketa-prozesuaren faseak lantzeko ulermen jarduerak proposatu, betiere sekuentzia didaktiko baten barruan txertatuta. Hala, **irakurri aurretik**, oso garrantzitsua da ikasleak motibatzea, hipotesiak egitea, haiei irakurketaren xedea jakinaraztea, haien aurretiko ezagutzak azaleratzea... Fase honetan, honako jarduera hauek egin daitezke:

- Animatu ikasleak testua irakurtzera; zer irakurriko duten azaldu .
- Irakurketaren xedea zehaztu: zer irakurriko duten eta zertarako irakurriko duten pentsatu.
- Gogoratu zer dakiten gaiaren inguruan edota gai horri lotutako beste gai batzuen inguruan, eta aurre-ezagutzak aktibatu.
- Erreparatu testuaren egiturari buruzko informazioa ematen duten marken balioari: izenburuak, eta azpi-izenburuak; atalak eta azpi-atalak; azpimarrak, letra lodiak...
- Hitz ezagunak identifikatu, gaia kokatzeko: istorioko pertsonaien edo hura gertatzen den tokien izenak, argazki eta irudien oinetako objektuen, tokien edo pertsonen izenak...
- Gaiak aurreratu, eta ikasleen arreta atalik esanguratsuenetara eraman.

Irakurri bitartean, berriz, komeni da aukera ematea galderak egiteko, irakurri ahala sortzen diren zalantzak argitzeko, irakurritakoa laburbiltzeko, testua ulertzen dutela egiaztatzeko... Hartara, fase honetan, honako jarduera hauek egin daitezke; betiere kontuan harturik irakaslearen esku-hartzeak ez duela ulermen orokorra oztopatu behar:

- Testuarekin batera dauden irudiei, grafikoei eta eskemei erreparatu eta haien arteko lotura ikustarazi.
 - Galderak egin, eta haien bidez ikasleen arreta irakurgaiaren funtsezko alderdietara eraman.
 - Bultzatu eta animatu irakurtzen ari direnaz hitz egitera, zer irakurtzen duten kontatzera, informazio jakin bat non topatu duten edo gai horren inguruan gehiagorik badakiten esatera...
 - Ulermen arazorik ba ote duten galdetu, eta lagundu haiek zehazten: zer ez duten ulertzen, non duten arazoa (lexikoan, perpausen egituran, gaian...).
 - Ikasleak ohitu beren buruari galdetzen testua ulertu ote duten, eta dituzten ulermen arazoen inguruan gogoeta egiten.
 - Ulermen arazoak konpontzeko hainbat bide eskaini: testua berriro irakurtzea, testuingurua interpretatzea, hiztegian begiratzea edo beste liburu bat kontsultatzea gaiaren inguruan gehiago jakiteko...
- **Eta, azkenik, irakurritakoa baliatuta**, ezagutza berria eraiki, eta modu partekatuan ulertu dutela egiaztatu, eskemak, buru- eta kontzeptu-mapak, laburpenak... eginez. Hala, fase honetan, honako jarduera hauek proposatu daitezke.
 - Solasean aritu irakurritakoaren inguruan, eta galdetu zer atal izan den zailena edo korapilatsuenena, eta zergatik.
 - Alderatu liburuaren aurkibidea, baldin badago, ikasleek ulertu dutenarekin; eta konturarazi izenburuak eta epigrafeak kontsultatzea oso baliabide erabilgarria dela irakurritakoaz gogoratzeko, eta norberaren buru-laburpena egiteko.

- Gogoratu testuko lexiko berria, eta egiaztatu esanahia ulertu dutela.
- Lagundu irakurritakoa berrantolatzen, eskemak, laburpenak, kontzeptu-mapak... eginez.
- Bultzatu irakurritakoa berrerabiltzera, ezagutza berria eraikitzen laguntzeko.



Irakurri aurretik

- Azaletik begiratuta antzeman zein izan daitekeen testuaren edukia.
- Metroa eta beste garraio batzuk konparatu.

Irakurri bitartean

- Honako kontzeptu hauek alderatu eta bereizi:
 - Linea
 - Ibilbidea
 - Zonaldea

Irakurri ondoren

- Foileto horretan dauden informazio motak alderatu.

Irakurketaren aldiak lantzeko jarduera.⁶ Adibide bat.

- **Irakurketa dialogikoa** bultzatu, jarduera egokiak proposatuz ikasleek ikaskideen arteko elkarrekintzaren bitartez eta irakurritakoaz berdinaren artean solas eginez konpon ditzaten ulermen arazoak, eta elkarrekin eraiki dezaten ezagutza. **Bikoteka Irakurtzen** programak, esaterako, helburu hauek lortu nahi ditu: irakurtzeko gaitasuna eta ikasleen arteko lankidetzaren hobetzea eta familiak etxeko lanetan gehiago inplikatzeko.

⁶ Irakurmena Hobetzeko Plangintza-tik moldatua. Nafarroako Gobernua. http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado/index.php?option=com_content&view=article&id=444&Itemid=397&lang=eu.



Intef. Irudien bankua

Bikoteka irakurtzen

- Berdinen arteko tutoretzan oinarritutako metodoa da.
- Ikasle bikoteek txandaka hartzen dituzte tutorearen eta tutoretzapekoaren rolak.
- Oso zehatz egituratutako jarduerak izaten dituzte abiaburu; eta, denboran aurrera egin ahala, apurka-apurka, autonomia handiagoz aritzen dira.
- Askotariko testuak irakurtzen dira (jarraituak, ez-jarraituak, literatura eremukoak, ikaskuntza eremukoak...).
- Familiak ere inplikatzeko dira: zenbaitzuetan, seme-alaben irakurketa-tutore izaten dira etxekoak.

- Ebaluazio-tresna askotarikoak erabili irakurketa-prozesua bideratzeko eta balioesteko (koebaluazio- eta autoebaluazio-orriak, esaterako).


Bikoteka irakurtzen: bikotearen autoebaluazioa		
Data:(e)tik(e)ra		
Ikasle-tutorearen izena:		
Ikasle-tutoretzaren izena:		
Blok egitekoa (ev. de la pareja)	Bai	Ez
Pauso guztiak betetzen ditugu: irakurri aurretik, irakurri bitartean, irakurri ondoren... (Realizamos todos los pasos propuestos: antes de la lectura, durante la lectura, despues de leer...).		
Tutoretzatutak (los alumnos tutorados)	Bai	Ez
Hitzak banatzen ditu (separa las palabras)		
Pausak errespetatzen ditu: (.), (,), (...) (respeta las pausas)		
Testuaren entonazio egokia egiten du: ?, ! (la entonación es adecuada)		
Hitzak gehitu gabe, aldatu gabe, trabatu gabe irakurtzen du (lee sin añadir, cambiar o desfigurar palabras)		
Ondo ahoskatzen du (pronuncia adecuadamente)		
Irakurketaren erritmoa: mantsoegia, azkarregia, egokia (azpimarratu) (el ritmo de la lectura: demasiado lento, rápido, apropiado)		
Galderak ondo erantzuten saiatzen da (intenta responder las preguntas de manera adecuada)		
Tutoreak (los alumnos tutores)	Bai	Ez
Ekintzen orrialdea prestatzen du (prepara la hoja de actividades)		
Eredua ematen du eta ondo irakurtzen laguntzen du (ejemplifica y ayuda a leer bien el texto)		
Denbora eta pistak ematen ditu (da tiempo y pistas)		
Tutoretzatutua animatzen du (da ánimos al tutorado)		
Zalantzak argitzen laguntzen du (resuelve dudas)		

Koebaluazio eta autoebaluazio txantiloia

Autoebaluazioa / Irakurketa	Bai	Ez
Irakurri aurretik • Izenburuari erreparatuz, testuaren gaia zein den jakiteko gai izan naiz. • Irudiei, formari... erreparatuz, testuak zertarako balio dezakeen jakiteko gai izan naiz.		
Irakurri bitartean gai izan naiz... • Testua ulertzeko. • Gainerako testuari erreparatuz, hitz ezezagunen esanahia deduzitzeko. • Hurrengo paragrafoak zeri buruz hitz egingo zuen sumatzeko. • Garrantzitsua eta ez hain garrantzitsua zer zen bereizteko, letra mota, kolorea... kontuan izanda.		
Irakurri ostean gai naiz... • Edukiari lotutako beste izenburu bat aurkitzeko. • Edukia laburbiltzeko. • Irudiak eta testuaren edukia lotzeko. • Ideia bakoitza dagokion paragrafoarekin elkartzeko. • Ikasitakoa lehendik nekizkien edukietatik bereizteko. • Kontzeptu mapa bat egiteko.		

Autoebaluazio txantiloia


- Interneteko baliabideak erabili informazio iturri gisa eta irakurketa-jardueren euskarri gisa.



LECTURAS PARA LOS PEQUEÑOS interactivas

- 21a E. Lecturas Pe. de 01 a 10: El pajarillo, Barcos de papel...
- 21b E. Lecturas Pe. de 11 a 20: Mi mochila, Rabito Blanco...
- 21c E. Lecturas Pe. de 21 a 30: El gigante egoista, Mago de Oz...
- 21d E. Lecturas Pe. de 31 a 40: Clara y el calmán, Mujercita...

<http://www.aplicaciones.info/lectura/lectura.htm>



www.txikinet.net

- Web 2.0ko tresnak erabili irakurketa-jardueren euskarri gisa. ADIa (Arbel Digital Interaktiboa), esaterako, testuak elkarrekin irakurtzeko erabil daiteke, lexiko berria koloretan nabarmenduz, paragrafoen esanahia laburbilduz...



ADIa erabiltzen ulermena lantzeko

Ikastetxea. Eskola-liburutegia

Ikasteko irakurketa garatzeko xedez, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, 113. artikuluan, honako hau zehazten du eskola-liburutegiaren eginkizunaren inguruan: “Eskolako liburutegiak lagungarriak izango dira irakurketa sustatzeko, eta ikasleek gainerako arloak eta jakintzagaiak ikasteko informazioa eta beste baliabide batzuk lortzeko eta horien erabilera kritikoan prestatzeko.”⁷

⁷LOE. Hezkuntzako Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3koa. 113.3 artikulua.

Eskola-liburutegiak, eskola-orduetan erabiltzen denean, **ikasle guztiek informazioa eskuratzeari dagokionez aukera berdinak izatea bermatzen du**, ikasleen artean egon litezkeen aldeak berdindu eta ikasteko baliabideak demokratizatu egiten baititu. Eskola orduetatik kanpo zabalik egoteak, berriz, zabaldu egiten dizkio ikasteko aukerak eskola-elkarte osoari.

Liburutegia antolatzean, bestalde, **denbora tarteak eta guneak** aurreikusi behar dira, ikasleek eta irakasleek ikasteko eta irakasteko prozesuetan txertatutako jarduerak bertan egiteko, eta gune hori beste baliabide didaktiko baten gisa erabiltzeko.

Leku atsegina eta erakargarria izan behar du, ikasleek elkarrekin egoten eta lankidetzan aritzen ikas dezaten. Bestalde, **eremuka antolatuta** egon behar du; eta, hala, gune aproposak eduki isilik irakurtzeko, taldeka aritzeko, informazio inprimatua nahiz digitala bilatzeko...

Eskola-liburutegiak ikastetxeko kide guztien esku jartzen ditu **eskolan landu eta erabiltzen diren hizkuntzetan** idatzitako dokumentu analogiko eta digitalak, eta informazioa eskuratzeko aukera ematen du -batez ere, gizartean presentzia txikiagoa duen hizkuntzan idatzitako testuei dagokienez-. Informazioa kudeatzea, gainera, askoz konplexuagoa da gaur egun, haren kantitatean eta kalitatean gertatu diren aldaketek eraginda. Beraz, **askotariko testuak** hainbat hizkuntzatan eduki behar ditu eta ezaugarri hori materialen funtsa eguneratzeko eta hautatzeko lehenetsuneko irizpide gisa erabili.

Liburutegi-arduradunaren eta irakasleen arteko elkarlanari esker, ikasleak gero eta autonomoagoak izango dira **ikasketa-jarduera zehatzei lotutako informazioa hautatzen, erabiltzen eta komunikatzen**. Halaber, ikastetxeko liburutegia erabiltzeak beste edozein liburutegitan ere autonomoak izaten laguntzen die ikasleei.

Liburutegi-arduradunak, irakasleekin adostuta, **planifikatuko** du liburutegiaren **erabilera** ikasleek informazioa eskuratu, hautatu eta berrerabiltzeko behar dituzten trebetasunak garatze aldera.

Liburutegiak ikastetxearen dokumentu-funtsak biltzen dituen **dokumentazio-gunea** izan behar du. Horretarako, askotariko baliabideak eduki behar ditu (testu idatziak, ikus-entzunezkoak ...), hainbat eratako euskarri eta formatuetan; eta, hala, hainbat helburu eta xederi erantzungo dien irakurketa egiteko aukera eman.

Beharrezkoa da, bestalde, **ikasgelako liburutegiaren eta eskolako liburutegiaren** funtzionamenduaren eta erabileraren arteko loturak ezartzea, bakoitzaren helburuak kontuan hartuz eta bien eginkizunak elkarrekin osatuz, ikasteko eta irakasteko prozesuetan elkarri laguntzeko.

Ikasteko irakurketa garatzeko, komeni da curriculumeko arlo guztietan **liburutegia erabiltzea** eta askotariko informazio iturriekin lan egitea **eskatzen duten lan-proiektuak proposatzea**.

Errealitate berari buruz ikuspegi anitz ematen dituzten **askotariko materialak askotariko euskarrietan** kontsultatzeko beharrezkoa da jasotako informazioa hautatzea eta laburtzea eta baita testuekiko jarrera bat hartzea, ikuspuntu kritikoa baliatuz.

Liburutegiaren erabilera ikasteko eta irakasteko prozesuetan txertatzeak prozesu horiek hobetzen eta informazioa ezagutza bihurtzen laguntzen du. Ikuspuntu horren arabera, eskola-liburutegiak lagun dezake bai irakasleen metodologia aldatzen, eta bai ikasleen autonomia eta ikasten ikasteko gaitasuna garatzen ere. Liburutegiaren ardura duen irakaslea lankidetzan aritu daiteke ikasgelan diharduen irakaslearekin, eta, biak batera, ikasleak hezi 'egiten jakin' dezaten,

haiei gero eta autonomia handiagoa lortzen laguntzeko. Hala, urratsez urrats, aldamiatzea eskainiko diete, jarduteko moduak erakutsiz eta ikaskuntza eredu gisa arituz.

Ekimenak eta jarduerak



Intef. Irudien bankua

Ikasteko xedez eskola-liburutegiaren testuinguruan egiten den irakurketak hau eskatzen du: liburutegi-arduradunak irakasleekin elkarlanean gidatzea ekimena. Horretarako, hainbat jarduera proposatu eta kudeatu behar dira. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke:

- Hainbat jarduera antolatu liburutegi-arduradunaren gidaritzapean, ikasleek, Haur Hezkuntzatik hasita, espazio hori eta beraren antolaketa ezagutzeko, bertako materialak eta baliabideak erabiltzen ikasteko, bertan zer-nolako dokumentuak biltzen diren jakiteko eta dokumentu horiek guztiak erabiltzeko prozesuak ulertzeko.⁸
- Jarduerak proposatu dokumentu-baliabideak sailkatzeko sistemaren inguruan, ikasleek iker dezaten baliabide horiek sailkatzeko, katalogoak antolatzeke.... irizpideen inguruan.
- Gelako liburutegia sortu liburutegi-arduradunak aurrez hautatutako liburu eta dokumentuekin, eta aldiro eguneratu. Bertan bilduko dira arlo guztietan —matematika, zientzia, ingurune arloan...—proposatzen diren ikaskuntza-jarduerak egiteko behar diren kontsulta- zein narrazio-testuak.
- Arlo guztietan, lan-proiektuak proposatu (proiektu globalak, diziplinartekoak, solidarioak, kooperatiboak...), eta, haietan, aukera eman ikasleei, askotariko dokumentuak kritikoki irakurrita, ezagutza berria eraikitzeke, banaka zein taldeka. Horretarako, ikasleek honako hauek egin behar dituzte:
 - Askotariko informazioa bilatu, era askotako euskarrietan.
 - Mota askotako informazio-iturriak erabiltzen ikasi.

⁸ ARELLANO, V. (2002): Liburutegia eta ikaskuntza autonomia. Nafarroako Gobernua. Blitz 3: http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/autonomo_e.pdf (2013ko irailean berrikusia).

- Dokumentu egokiak hautatu, eskuartean dutena egiteko iturri gisa.
 - Dokumentu horietako informazioa ulertu.
 - Dokumentu horietatik proiekturako informazio egokia atera.
 - Hautatutako informazioa berregin eta berrantolatu.
 - Ikerketaren emaitza jakinarazi, komunikatu.
 - Bai prozesua, bai proiektuaren emaitza ebaluatu.
- Ikasleei eta irakasleei eskola-liburutegiko nobedadeen berri eman, hainbat estrategia erabiliz:
 - Toki finko bat prestatu, liburu eta material berriak erakusteko.
 - Familientzako eta irakasleentzako informazio-buletina argitaratu.
 - Eskola-elkarteko kideen parte-hartzea sustatu, ikasleei tradizioak, ezagutzak, praktikak... helarazteko, bai bertokoak, bai kanpokoak; horretarako aukerarik badago. Hala, ikasleek beren inguru hurbiletik haratagoko ikuspegiak berri izango dute.
 - Ikasleak inplikatu lankidetzan eskatzen duten egitekoetan. Zeregin horietan ezinbestekoa izango da taldekideen arteko elkarlana konponbidea lortzeko (jolas kooperatiboak).
 - Antolatu, irakasleen laguntzaz, liburutegiak aholkatutako liburuen (novedadeak, esaterako) gaineko iritziak emateko uneak: ikasleek beren iritzia emango diete beste ikaskide batzuei, eta irakurri dituzten liburuez hitz egingo dute.
 - Tailerrak egin literatur liburuen edo txatalen irakurketa adierazkorra eta dramatizatua egiteko, bai eta haien antzezpena ere, honako xede hauek lortze aldera: ikasleek testuak hobeto ulertzea, haien arteko lankidetzan bultzatzea, motibazioa sustatzea eta ikusleen aurrean modu formalagoan antzeztea.
 - Parte hartu, irakasleekin batera, hainbat proiektu eta ekitalditan: olerki errezitaldia prestatzen, ikastetxeko blogean edo pasabideetan ikusgai jarriko diren zientzia-albisteen berri ematen,



matematika-jolasen saioa antolatzen, inguruan topa daitezkeen zuhaitz motak aztertzeke irteera antolatzen...

Familiak eta Ingurua

Hezkuntzaren Lege Organikoak xedapen orokorretan honako hau dio: “Familiek hertsiki lagundu eta seme-alaben eguneroko lanaz eta ikastetxeetako bizitzaz arduratu behar dute.”⁹ Hau da, azpimarratu egiten du familien eta ikastetxeen arteko lankidetzaren funtsezko elementua dela ikasleek eskola-arrakasta lortzeko.

Halaber, nazioartean, estatuan zein autonomia erkidegoetan egin diren ebaluazioek ondorioztatu dute familiaren esku hartzea ikasleek eskola-arrakastaren edo porrotaren eragileetako bat dela eta, horrez gain, gurasoek ikasketa maila altua izatea lotuta dagoela ikasleek irakurtzeko gaitasunean puntuazio altua izatearekin. Beraz, ikastetxeak inplikatu egin behar ditu familiak ikasteko helburuz egiten diren irakurketa-jardueretan, eta aukera eman behar die ikastetxearekin lankidetzan aritzeko.

Inguruari dagokionez, berriz, indarrean dagoen curriculum markoak, Oinarritzko Gaitasunen garapenari lotutako planteamendutik abiatuta, aintzat hartzen du testuinguru formal eta arautuetan ez ezik, testuinguru ez arautuetan ere —formalak zein ez formalak— ikasten dela. Beraz, eskolatik eta familiarik harago doan ekimena da heziketa; eta, egun, hiri, ingurunea, heziketarako eragile eta hezitzaile bihurtzen da. “Hiri hezitzaileak”¹⁰ kontzeptuaz hitz egiten da, eta inguruak eskaintzen dituen baliabideak modu planifikatuan erabili behar dituzte ikastetxeek.

Ikasteko irakurketa hobetzeko, ikastetxeak familiak parte hartzea sustatu behar du, batetik, zenbait ekimenetan orientabideak eta laguntza eskainiz; eta bestetik, haien ekarpenak jasoz eta ikastetxera eramanez.

Ikastetxetik kanpo, inguruak ere ikasteko baliabide askotarikoak eskaintzen ditu (liburutegiak, museoak, erakusketak...). Ikastetxeari dagokio baliabide horiek erabili eta eskolan txertatzea, oso baliagarriak baitira ikasleak heitzeko.

Familiak ere ingurua baliatu behar dute; eta, hala, udalak, herriak, auzuneak... zer-nolako proposamenak eskaintzen dituen jakin eta proposamen horietan parte hartu. Ikasbide aproposa da hori seme-alabei irakurtzeko gaitasuna hobetzen laguntzeko, umeen, nerabeen zein helduen herritartasuna bultzatzeko eta familiako elkarbizitza errazteko.

Goian esandako guztia kontuan hartuta, beraz, ikastetxeari dagokio honako hauek egitea:

- Lankidetzaren proposamenak diseinatzea eta antolatzea ikasleek familiarekin.
- Inguruak eskaintzen dituen heziketa-baliabideen berri izatea eta baliabide horiek baliatzea.
- Aldian-aldean, familiei informazioa helaraztea.

⁹ Hezkuntzaren Lege Organikoa, LOE 2006, maiatzaren 3koa, Xedapen Orokorrak.

¹⁰ Herritarren gunetzat hartuta, ikusteko lekuak, bertatik pasatu eta bertan egoteko eta elkarrekin komunikatzeko hiriak. Elkarrekin ikasi eta elkarri irakasteko lekuak: http://www.bcn.es/edcities/aice/estaticos/espanyol/sec_educating.html.

- Familiek ikastetxean parte hartzea sustatzea.
- Kanpoko erakundeek (udala, kultura-elkarteak, gizarte zerbitzuak...) ikastetxean esku hartzea sustatzea.

Ekimenak eta jarduerak

Familien partaidetza bultzatzeko eta inguruko erakundeek eskaintzen dituzten baliabideak baliatzeko, jarduera hauek egin ditzake ikastetxeak:

- Familiei eskatu zehatz eta modu eraginkorrean seme-alabei lagun diezaieten irakurtzeko gaitasuna garatzen. Hartara, lankidetza-kontratuak edota irakasleen eta ikasleen arteko lankidetza-konpromisoak proposa daitezke.

CEP.....LHI

Irakurtzeko gaitasuna hobetzeko eta tutoreari laguntzeko, honako honen bidez, guk,
, ikastetxe honetan zikloan/mailan ari den
 ikaslearen amak/aitak/arduradunak behean adierazi-
 takoak betetzen saiatuko garela adierazten dugu:

- Irakurketari lotuta Ikastetxeak eman dituen aholkuak kontuan hartuko ditugu.
- Ikasteko eta irakurtzeko leku aproposa prestatuko dugu.
-
-
-
-

Sinadurak eta data

Familia

Tutorea

Kontratua familiekin. Eredu bat

- Irakurgaien eta materialen zerrendak prestatu, ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, ikasteko irakurketa garatzeko, gurasoek seme-alabekin etxean erabil ditzaten.

Zer egin dezaket seme-alabek irakur dezaten?

- Lagundu, ez behartu.
- Eskolako lanen jarraipena egin.
- Irakurtzeko leku lasaia eta giro egokia prestatu.
- Egitekoak antolatzen lagundu: denbora, liburuak...
- Interesa erakutsi semeak edo alabak egiten duenaz, ezagutzak eta liburuak partekatuz, interneten informazio bilaketak eginez....
- Adi egon eta zalantzak argitzen lagundu.
- Informazio- eta kontsulta-lan egokiak aukeratu.
- Askotariko informazio-iturriak erabiltzeko aukera eman etxean.
- Interneten lagundu eta elkarrekin nabigatu.

Zenbait orientabide

- Irakurgaien eta materialen zerrendak prestatu, ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, ikasteko irakurketa garatzeko, gurasoek seme-alabekin etxean erabil ditzaten.

Curriculumeko arloak: irakurketa materialak¹¹

Curriculumeko arloak: irakurketa-materialak

¹¹ <http://sites.google.com/site/materialesparaleer/home>.

- Familiekin egiten diren tutoretza-bileretan, irakurtzeko gaitasuna garatzeko orientabideak eman, eta proposamen eta jarduera zehatzekin osatu.¹²
- Gurasoen Elkarteari (IGE) eskatu ikaskuntzari lotutako irakur-jarduerak garatzeko ekimenetan esku-hartzeko (materialak eta baliabideak erosi, material-hautaketan parte hartu...).
- Ikastetxeko webgunean edo ikasgelako blogean gunen bat sortu familiekin parte har dezaten. Bertan, arloak lantzeko material osagarriak partekatu ahal izango dituzte beste guraso batzuekin.
- Inguruko eskaintzaren berri izan, eta irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko ekitaldirik egokienak aukeratu eta ikasleek haietan parte hartzea eta familiekin laguntzea bultzatu.
- Inguruko kultura-proposamenei buruzko informazioa helarazi seme-alabekin parte har dezaten haietan (udal liburutegiak, erakusketak, era askotako ekitaldiak...).
- Erakundeei (udala, udal liburutegia...) eskatu ikastetxeko ohiko jardueretan parte hartzeko.



Bilboko Alondegiko mediatekaren webgunea

- Inguruko kultura-proposamenei buruzko informazioa helarazi seme-alabekin parte har dezaten haietan (udal liburutegiak, erakusketak, era askotako ekitaldiak...).
- Erakundeei (udala, udal liburutegia...) eskatu ikastetxeko ohiko jardueretan parte hartzeko.

¹² *Bikoteka irakurtzen*. Familientzako orientabideak.



Proyectos educativos del Museo Guggenheim

Irakurzaletasuna garatu

“Irakurtzea birritan bizitzea da.”

Antonio Gamoneda

Irakurzaletasuna garatzeak honako helburu hau du: ikasleengan sustatzea era askotako testuak modu autonomoan eta askotariko helburuekin irakurtzeko ohitura. Jakin badakigunez irakurzaletasunak norberaren garapenari ez ezik, eskola-arrakastari ere laguntzen diola, irakurtzeko ohitura sendotzea eskolaren helburu bat da.

Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzek, bestalde, irakurriaren ulermenaren eta irakurketarekiko interesaren artean lotura estua dagoela erakutsi dute. Hala, beren borondatez inork behartu gabe disfrutatzeko irakurtzen dutela adierazten duten ikasleek lortzen dituzte emaitzarik altuenak testu digitalen eta testu inprimatuen irakurketako probetan.¹³

Irakurzaletasuna modu sistematikoan sustatu eta txertatu behar da ikastetxean, eta ikasleak irakurketara hurbildu behar dira zenbait estrategiaren bidez, irakurtzea beharrezkoa duten zerbait dela senti dezaten eta plazer iturri gisa har dezaten. ‘Irakurri irakurtzeagatik’, norbere buruarekin gustura sentitzeko helburuaz egiten den plazerezko irakurketan ere hezi behar du eskolak.

¹³PISA 2009 Euskadi. 2. txostena: Aldagaien azterketa eta ikasleen irakurketako emaitzan duten eragina. <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2009/PISA2009-2txostena-aldagaien-azterketa.pdf>.

Hori guztia lortzeko, jarduera-ardatz honetan ere, Bigarren Hezkuntzako irakasleei lagungarri izan dakizkiekeen orientabideak, ekimenak eta jarduerak proposatzen ditugu bi testuinguru hauetan:

• ***Ikastetxea: ikasgela eta liburutegia***


• ***Familia eta ingurua***

Ikastetxea. Ikasgela

Gizartearen gehiengo zabala bat dator ikasleengan irakurzaletasuna sustatzeko beharrian aitortzean. Hori dela eta, eskolak bermatu behar du ikasleak, derrigorrezko eskolaldia amaitzen dutenean, irakurle gaituak izango direla, eta, horrez gain, haien familia-egoera eta egoera pertsonala edonolakoak izanik ere, irakurtzeko aukerak eduki dituztela.

Hala, irakurzaletasuna sustatzeko erabaki guztiak ikastetxearen Curriculum Proiektuan jaso behar dira, eta ikastetxeko beste proiektuek ere islatu behar dituzte (Hobekuntza Plana, Hizkuntza Proiektua, Hizkuntza Normalkuntza Proiektua, Berrikuntza eta Prestakuntza Proiektuak...); ikastetxea baita irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak antolatzen dituen. Halaber, erabaki horietan kontuan hartu behar dira arrazoi asko tarteko irakurtzeko gaitasuna behar bezala garatzeko zailtasuna duten ikasleak.

Pertsona helduen irakurketa-praktikak dira irakurtzera bultzatzeko ekimenen abiapuntu; irakurketara hurbiltzeko nahiz irakurketatik urruntzeko arrazoiak berberak baitira gazteengan zein helduengan. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: irakurgaiak aukeratu ahal izatea, irakurtzeko toki atsegina eta erlaxatua edukitzea, irakurritakoaz hitz egitea, irakurketa ez lotzea irakurri osteko eskolako lanekin...



Aldagai horiek laguntzen diote **irakurketari komunikazio-egintza borondatezkoa, autonomoa eta atsegina** izaten; eta zehazten dute zer bidetatik transmititu behar den irakurtzeko zaletasuna.

Liburuak hautatzeko askatasuna behar-beharrezkoa da irakurtzea jarduera atsegina izateko, eta eskatzen duen kontzentrazioa eta ahalegina probetxuzkotzat jotzeko. Irakurgai anitz eta askotarikoak eskura izateak aukera ematen du ikasleentzako motibagarriak diren liburuak, eta euren interesekin, zaletasunekin, irakur mailarekin... bat datozenak, proposatzeko, bai eta irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei material egokiak eskaini ahal izateko ere. Beraz, zenbat eta zabalagoa izan irakur materialen eskaintza, orduan eta handiagoa irakurtzeko zaletasuna sustatzeko aukera.

Baina **irakurgaiak norberaren irizpideen arabera aukeratzeko**, norberaren gustua garatzea, irakaslearen laguntza eta gidaritza eskatzen duen prozesua da, ikasleak, pixkanaka-pixkanaka, gero eta modu autonomoagoan jokatzen hasi arte.

Komeni da irakurtzeko **toki atsegina** eta erosoa **prestatzea**. Ikasleei proposa dakieke, esaterako, irakurketa-espazio hori diseinatzeko laguntzea.



Ikastetxe bateko irakurketa txokoa

Bakarrik nahiz beste batzuekin batera irakur daiteke. Irakurteak aukera ematen du norberaren buruarekin gogoeta egiteko, bai eta beste batzuekin batera irakurritakoaren gaineko ideiak, emozioak, iritziak, sentimenduak eta sentsazioak partekatzeko ere. Hartara, beharrezkoa da irakurketen inguruan hitz egiteko jarduerak diseinatzea, hala nola liburuak maileguan uztea, edo liburuak aholkatzeko aukera ematea, irakurle-taldeetan parte hartzea, boz gorako irakurraldiak egitea, norberaren zaletasunen inguruan solasean aritzea, irakurritakoaren inguruan aritzea liburuak hizpide hartuta...

Ikastetxean egin ohi den irakurketa, gehiegitan, irakurri osteko jarduerekin (fitxak, laburpenak, probak, hitzen zerrendak, glosarioak...) lotzen da, batez ere irakurritakoaren gaineko kontrola egiteko. Espazioak eta momentu egokiak bilatu behar dira ikasleek **eskola-jarduerekin lotzen ez den irakurketa** egin dezaten.

Ikasle gazteenek ikusi behar dute txiki-txikitatik eta, horrela hazi, inguran, bai eskolan, bai etxean, pertsona helduak liburuez hitz egiten dietela, albisteak kontatzen dizkietela, eta izenak, letrak, hitzak, etiketak, kaleko kartelak, errotuluak... irakurtzen dizkietela. Gainera, irakurketaren ikaskuntza askoz sendoagoa izango da irakurtzea ohitura bihurtzen bada, zerbait gustagarria

eta gozatsua bada; eta, helduekin dituzten ikasteko une egituratuetan nahiz bat-batekoetan, irakurketa hizpide bada.

Gainera, haurra irakurle autonomoa ez denean, garrantzi handikoa da irakurle helduek testuak irakurtzea. Irakurketa esperientzia horrek irakurketaren plazera sustatzen du, eta irakurle hasi berriari laguntzen dio testu idatziaren egiturarekin eta haren hizkuntzarekin ohitzen. I. Solé-k (1992) adierazten duenez, “praktika horrek irakurriaren ulermena lantzeko aukera ematen du irakurtzen jakin aurretik”.

L. Tolchinsky -k¹⁴ dio irakurketa prozesuen hastapenetan ere beharrezkoa dela haurrek testuen balio estetikoa eta literarioa antzeman ahal izatea. Hala, testu literarioekin lor daiteke helburu hori, bai narrazio fantastikoekin —ipuinak, mitoak, kondairak—, bai benetan gertatutako zein irudimenak egituratutako ekintzak kontatzen dituzten narrazioekin —olerkiekin zein hitz-jolasekin...—. Nolanahi ere, esperientzia gustagarriak eta positiboak izango dira, eta, gerora, ikasleei lagunduko diete konturatzen testu idatziak zer-nolako ahalmena duen sentimenduak adierazi eta sorrarazteko, irudimenezko munduak imajinatzeke eta eraikitzeke; eta hori guztia beste batzuei helarazteko, eta haiekin partekatu ahal izateko.

Irakurlearen dekalogoia

Irakurketa dela eta, guk, “irakurleok”, geure egiten ditugun eskubideak, sarritan, eragotzi egiten dizkiegu gazteei; haiengan irakurtzeko zaletasuna sustatu nahi badugu, aitortu egin beharko genizkieke eskubide hauek:

1. Ez irakurtzeko eskubidea.
2. Orriak pasatzeko eskubidea.
3. Liburua ez amaitzeko eskubidea.
4. Berrirakurtzeko eskubidea.
5. Edozer irakurtzeko eskubidea.
6. Edonon irakurtzeko eskubidea.
7. Edonola irakurtzeko eskubidea.
8. Liburuak gainetik irakurtzeko eskubidea.
9. Ozen irakurtzeko eskubidea.
10. Isilik egoteko eskubidea.

Nobela bat bezala. Daniel Pennac

Ekimenak eta jarduerak

Irakurzaletasuna garatzeko, irakurketak lehentasunezko hezkuntza-ekimena izan behar du, eta ikastetxeko kide guztien lan koordinatua eta sistematizatua behar du. Hartara, era honetan jokatu behar da:

- Irakasle guztiak inplikatu irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenetan; izan ere, irakurmena ez dagokio arlo jakin bati: eskola-elkarte osoa da irakurtzen duena, eta irakurtzera bultzatzen duena.

¹⁴ Montserrat Fons-ek aipatua “Leer y escribir. 10 ideas claves para los primeros pasos” liburuan. <http://docentes.leer.es/2010/01/28/leer-y-escribir-10-ideas-clave-para-los-primeros-pasos-montserrat-fons/>.

- Irakasle guztien eginkizuna indartu irakurketa-erreferente gisa. Irakasleek irakurtzen dituzten liburuen inguruan hitz egiten badiete ikasleei, irakurritakoaz hitz egiten badute, irakurketa-esperientzia hori erreferentzia izan daiteke ikasleentzat, eta irakurle ibilbidea eraikitzen lagunduko die.
- Irakurtzeko gune eta giro aproposak planifikatu ikasgelan, liburutegian, berariaz egokitutako beste txoko batzuetan, patioetan... Gune horiek ikasleen laguntzarekin dinamizatu daitezke. Hori guztia egiteko, aurrekontuko diru partida bat esleitu behar da.
- Denbora-tarteak planifikatu eta erreserbatu, eta Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumaren Dekretuaren 12. artikuluan adierazitakoa martxan jarri: “Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko eta komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Ikastetxeek arlo guztien hezkuntza-jardueran bermatu behar dute irakurketari eskainitako denbora, maila guztietan. Lehen Hezkuntzarako gehiago zehazten da irakurketari eskaini beharreko denbora hori: “Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxeek, hezkuntza jarduera antolatzeako orduan, egunean gutxienez hogeita hamar minutuko irakurketa-denbora sartu beharko dute, etapako maila guztietan” (10. artikulua, 5. atala).¹⁵



*Intef.
Irudien bankua*

- Ikastetxeko irakurgaien funtsa aztertu eta handitu, liburutegi- arduradunarekin lankidetzan. Ikastetxeak askotariko testuak, eguneratuak eta ondo hautatuak eduki behar ditu, ikastetxean ikasi eta irakasten diren hizkuntzetan idatziak. Bilduman, testu-tipo askotarikoak eta hainbat euskarritan egon behar dute. Halaber, irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako laguntza-sistemak ere eduki behar ditu.
- Inguruan presentzia txikiagoa duen hizkuntza ofizialean idatzitako liburuak behar beste daudela bermatu. Era berean, liburutegiak ikastetxean eta inguruan erabiltzen diren beste hizkuntzetan idatzitako testuak ere eduki beharko lituzke (ikasle etorri berrien hizkuntzetan...).
- Irakurgaiak hautatzeko irizpideak adostu liburutegiko arduradunarekin batera. Irizpide gisa, besteak beste, honako hauek aipa daitezke: ikastetxean lantzen diren balioak kontuan hartzea, irakurleen motibazioa eta interesa, ikasleen iritziak, testuen kalitatea...

¹⁵Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumaren Dekretua. Eusko Jaurilaritza. Hezkuntza Saila.



EIBZ: Materialak. Nafarroako Hezkuntza Saila

- Arlo guztien programazioan, askotariko irakurgaiak proposatu. Irakurzaletasuna ez dago zertan lotuta egon literaturarekiko edo literatur genero batekiko zaletasunari: beste testu-genero asko ere bereganatu ahal ditu, hala nola informazio liburuak, entziklopediak, aldizkariak, komikiak..., bai inprimatuak, bai digitalak.



Matematika arloko irakurgaiak

- Irakurgaiak eta liburuak hautatzeko irizpide pertsonalak zehazten laguntzen duten jarduerak diseinatu. Esaterako, titulu bakarra eman beharrean, liburu zerrendak eskain daitezke, edo iruzkinak edota laburpentxoak eman proposatutako irakurgaien edukiari buruz orientatzeko...



SOL. Servicio de Orientación a la Lectura (<http://www.sol-e.com>)

- Irakurketa-teknika eta -estrategia anitz planifikatu, irakurtzea beste helburu ez dutenak, hau da, irakurketari lotutako lan edo eskola-egitekorik ezarri gabe; izan ere, sarritan, eskolako lan horiek indargabetu egiten dute irakurketa, eta ikasleek interesa galtzea dakarte... Besteak beste, honako teknika eta estrategia hauek proposa daitezke:
 - **Solasaldi literarioak.** Besteak beste, honako helburuak erdietsi nahi dituzte: literaturaz gozatzea, partaide guztien artean testuaren esanahia eraikitzea, argudiatzen ikastea eta balio positiboak lantzea. Solasaldietan, irakurritakoa abiapuntu, gogoetak, zalantzak, interesak, eztabaidak... azaleratzen dituzte partaideek. Gogoeta eta interpretazio guztiak balekoak dira eta testuaren zentzua aberasten dute. Eskuarki, ikasgelan antolatzen du tutoreak solasaldi saioa, baina familiek, beste irakasle batzuek, eskola-elkarteko bete kideek ere parte har dezakete.

Hau da solasaldi literarioen metodologia:

- Solasaldia baino lehen, parte hartzen dutenek aurrez zehaztutako kapitulua edo orrialde kopurua irakurtzen dute. Irakurleek atentzioa eman edota gogoeta sorrarazi dieten paragrafoak, atalak edo esaldiak aukeratzen dituzte. Normalean, hiru edo lau aukeratzen dituzte eta markatu egiten dituzte post-itak erabiliz edo azpimarratuz
- Saioan, ikasleek, berba egiteko txanda eskatuta, ozenki irakurtzen dute aukeratutako atala eta zergatik aukeratu duten azaltzen dute. Besteek, nahi duten hizkuntzan, irakurritakoaren inguruan argudiatu dezakete edo kontrako iritzia eman.
- Solasaldiaren moderatzaileak, tutorea eskuarki, berba egiteko txandak arautzen ditu eta parte hartzera animatzen ditu ikasleak. Ekarpenak egiten dituzten ikasleen izenak idazten ditu. Tutorea beste kide bat da taldean, beraz, ezin du bere iritzia ezarri.
- Etxean egiten da aurrez adostutako atalaren edo kapituluaren banakako irakurketa. Hala ere, irakurtzeko zailtasunak dituen ikaslerik badago eskola orduetan prestatutako da irakurketa Pedagogia Terapeutikoko irakaslearekin, Hizkuntza Indartzeko Prestatutako Irakaslearekin (HIPI), ikasle nagusiagoekin edo tutorearekin. Helburua da aurrez prestatutako atala ikasle guztiek ozenki irakurri ahal izatea, eta denek irakurritakoaren inguruan zerbait esatea.

Solasaldi literarioa jarduera betea eta interesgarria da berez. Horregatik, ez da eskola jarduerara osagarririk planteatzen: ez dute lekurik ikasleek testua irakurri duten ala ez egiaztatzeko jarduerak, edota irakurritakoa ulertu duten ala ez frogatzekoek.

- **Boz gorako irakurketa.** Irakasleak edota ikasleek egindako boz gorako irakurraldi on batek irakurketaz gozatzeko aukera ematen du: irakurtzen duenarentzat jarduera atsegina da eta entzuten duenarentzat, berriz, gozagarria. Boz gorako irakurketa ikastetxeko liburutegian edota ikasgelan egin daiteke. Ondo hautatu behar dira irakurri eta partekatuko diren testuak. Horrez gain, beharrezkoak dira planifikazioa eta entrenamendua, irakurketa eraginkorra eta ona izan dadin. Ikasleei, irakurtzeko gaitasuna sendotu ahala, proposa dakieke, noizbehinka eta denbora-tarte laburretan, gelako beste kideei testuak ozenki irakurtzea. Horretarako, denbora eman behar zaie irakurketa prestatzeko, bai etxean, bai ikasgelan edo ikasgelatik kanpo beste irakasle batekin...; betiere irakurketa ona egingo dutela egiaztatuz, jarduera hori bai entzuleentzat, baita irakurlearentzat ere, atsegina izan dadin.
- **Sei irakurle testu baten bila.**¹⁶ Irakurketa-jarduera hau taldeka egiten da, sei ikasleko taldeetan eta taldekide bakoitzak zeregin bat du irakurketa-xedearen arabera.

Irakasleak proposatzen ditu rolak:

- **Irakurlea.** Testua ozenki irakurtzen du. Ikasle guztiek dute testuaren kopia.
- **Detektibea.** Eten egiten du irakurketa ongi ulertzen ez dituen hitzak edo hitz “zailak” entzuten dituenen.
- **Galdetzailea.** Entzun ahala, bere iritziz falta diren datuak galdetzen ditu. Testua behar bezala ulertu ahal izateko egin beharko liratekeen galderak egiten ditu.
- **Kazetaria.** Testuaren atalak laburtzen ditu; taldekoen ‘oroimen’ gisa funtzionatzen du.
- **Jakintsua.** Bere iritziz interesgarriak diren beste ideia, informazio edo datu batzuekin erlazionatzen du irakurgaia.
- **Igarlea.** Irakurleak, momentu jakin batean edo amaiera baino lehen, utzi egiten dio irakurtzeari, eta igarleak igarri egin behar du zein den atal horren edo testuaren amaiera.

Liliana Tolchinsky, Mabel Pipkin

- **Giza-liburuak.**¹⁷ Proposamen honek beste pertsona batzuekin, hau da, entzuleekin, lotzen ditu hitzak eta irakurketa. Ekimenean parte hartzen duen irakurleak pentsatu behar du liburu bat zein liburu edo zein testu izango litzatekeen. Gero, hautatutako testu txatala ongi ulertu, eta buruz ikasten du. Hala, ‘giza-liburu’ bihurtzen da, eta beste pertsona batzuei errezipitatuko die buruz ikasitakoa. Jarduera hau aurrez planifikatutako eta antolatutako parametroen arabera egin daiteke, esaterako, literatur testuak hauta daitezke, eta egun berezi batean edo ospakizunen batean, ‘giza-liburuek’ buruz ikasitako pasarteak errezipitatuko dizkiete bertaratuko direnei.
- **Ikastetxearen parte-hartzea** bultzatzen dute jarduera orokorrak antolatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko. Besteak beste, hauek aipa daitezke:
 - **Askotariko lehiaketak:** literatur esloganak, irakurketaren inguruko horma-irudiak...
 - **Bisitak** liburutegietara, liburu-dendetara...

¹⁶ *Aula de Innovación Educativa*, 39. alea. 15-19 or.

¹⁷ Fahrenheit 451 proiektua: <http://www.personaslibro.org/>.



Fahrenheit 451 Proiektua

- **Egun berezietako ospakizunak:** Euskararen Nazioarteko Eguna (abenduarien 3an), Liburuaren Eguna (apirilaren 23an), Ingurugiroaren Eguna (ekainaren 5ean), Hizkuntzen Europako Eguna (irailaren 26an)...
- Topaketak idazleekin eta irudigileekin irakurritako liburuez hitz egiteko.
- Halaber, irakurzaletasuna sustatzeko, honako jarduera hauek proposa daitezke irakurle hasiberriekin:
 - Ipuin-kontalari saioak. Saio horietan, pertsona heldu batek (irakaslea, etxekoak, kanpoko kontalaria...) ikasleen adinerako testu egokiak dramatizatu eta girotu egiten ditu.
 - 'Maleta ibiltariak'. Liburu hautatuez osatutako maleta horiek epe laburreko maileguan eramaten dituzte ikasleek etxera, etxekoekin irakurri, eta denek elkarrekin liburuez gozatzeko. Ekimen hau osatu daiteke erakusketa batekin, eta, bertan, tutoreak hautatutako liburuak eta haurrek balioetsitakoak erakutsi.
 - Ipuin beraren bertsio desberdinak erakutsi eta alderatu.

Prozedura

- **Egoera didaktikoa:**
 - Ipuin klasiko baten bi bertsioen arteko aldeak antzematea.
- **Helburuak:**
 - Testuak alderatzeko estrategiak eskuratzea, bien arteko aldeak bilatuz eta aztertuz.
 - Giro egokia sustatzea, irakasleak eta ikasleek jarrera gogoetatsua eta horrelako egoerei dagozkien lan-prozedurak garatze aldera.
- **Edukiak:** kontakizun beraren bertsio desberdinen aldeak: pertsonaiak, ekintzak, izenburua, kontakizunaren luzera, irudiak...
- **Garapena.** Talde handian bultzatuko da gogoeta. Horretarako, testua ozenki irakurriko da. Irakasleak jasoko du talde handian egindako gogoeta eta taula batean bilduko ditu antzemandako aldeak.

- Irakurri eta entzun goiko mailetan dabilzan ikasleek idatzitako testuak.
- **“Irakurketa aitabitxia edo amabitxia”** ekimena antolatu. Jarduera horretan, goiko mailetako ikasleak irakurle hasi berriekin aritzen dira: irakurtzeko momentuak eta tokiak antolatzen dituzte elkarrekin.

Prozedura

- Haur Hezkuntzako ume bakoitzari irakurtzeko laguntzaile bat egokitzen zaio, esaterako, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle bat, eta honek etapan zehar laguntzen dio, hiru bat ikasturtean.
- Bien artean harreman estua ezartzen da ikastetxean, baina ikastetxetik kanpo ere atera daiteke eta beste espazio eta gune batzuk hartu: irteerak, aisialdia...
- Ikasturtean zehar bikoteei irakurketa partekatua egiteko denbora tarteak eskaintzen zaizkie.
- Ikasle zaharrenak liburuak irakurtzen dizkio gazteenari eta biak bat-bateko giro atseginean elkarrekin aritzen dira
- Ekimen honek ikaskuntza eta pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditu eta elkarri lotzen ditu. Horrez gain, bikoteko kideengan irakurtzeko trebetasunak eta irakurtzeko gaitasuna garatzen ditu.

<http://xtec.es/ceipbordils/biblioteca/padrinslectura.htm>

IKASTETXEA. ESKOLA LIBURUTEGIA

Liburutegiak, ikasgelatik kanpoko espazio gisa, irakurketaren alde lan egiteko aukera ematen dio eskola-elkarteari. Funtsezko eginkizuna du irakurzaletasunaren garapenean, ikasleek nahierara irakurri, arakatu, aztertu edo baztertu ahal dituzten testu, liburu eta baliabide asko jartzen baititu haien esku, doan. Irakurzaletasuna sendotzeko abiapuntua, hein handi batean, irakurlea irakurtzeko librea dela onartzea da.

Liburutegiaren helburuak ikastetxeko agirietan jaso behar dira; batez ere, Hizkuntza Proiektuan, Hobekuntza Planean, Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan, Urteko Planean... Izan ere, klaustroak bere egiten dituen dokumentuak dira, eta ikastetxea antolatzen laguntzen duten egitasmoak eta jarduerak biltzen dituzte.

Liburutegiak era askotako materialak eduki behar ditu, irakurtzeko denbora eta eremuak eskaini, eta irakur jarduerak dinamizatu, ikasleen eta haieni ngurukoen irakurtzeko zaletasuna pizteko.

Irakurzaletasuna garatzen laguntzeko, liburutegiko materialek askotarikoak izan behar dute, formari zein edukiari erreparatuta. Horrenbestez, material inprimatua eta ikus-entzunezkoa, euskarri digitalean eta analogikoan eduki behar ditu, bai eta irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako baliabideak ere. Beharrezkoa da era askotako estrategiak martxan jartzea ikastetxeko kide guztiek ezagut ditzaten bertan bildutako dokumentuak.

Materialen funtsa sortzeko, baliabideak ondo hautatu behar dira, eskola-elkartearen (gurasoak, ikasleak, irakasleak, langile ez-irakasleak...) interesak eta eskaerak kontuan hartuta eta elkarteen eta liburutegien aholkularitzaz baliatuta, ikastetxearen beharrianak asetze aldera.

Hainbat hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, ikastetxeko eta inguruko beste hizkuntzak...) idatzitako testuak eduki behar ditu, eta irizpide horri lehentasuna eman materialen funtsa eguneratzeko eta hautatzeko.

Liburutegiak ikasleak eta irakasleak modu sistematikoan bertaratzeko aukera eman behar du, bai eskola ordutegiaren barruan, bai eskola ordutegitik kanpo. Eskola orduetatik kanpo liburutegia zabalik egoteak zabaldu egiten dizkio aisialdirako aukerak eskola-elkarteari.

Leku atsegina eta erakargarria izan behar du, ikasleek elkarrekin egoten eta lankidetzan aritzen ikas dezaten. Bestalde, eremutan antolatu behar da; eta, hala, gune aproposak eduki isilik irakurtzeko, idazleekin topaketak egiteko, informazioa sarean bilatzeko, solasaldi literarioak egiteko...

Hemen proposatzen diren ekimen eta jarduerak asko liburutegian zein ikasgelan gara daitezke; betiere ikastetxearen antolakuntzaren arabera. Hala, ikastetxeak lanaldi osoko liburutegi-arduraduna baldin badu, hark hartuko du —betiere irakasleekin lankidetzan— atal honetan aipatzen diren ekimen eta jarduerak guztiak diseinatzeko eta planifikatzeko ardura. Liburutegiak ordutegi murritzua baldin badu, ordea, liburutegiaren ardura hartzen dutenek (gurasoak, irakasleak, langile ez-irakasleak...) bete ditzakete hemen proposatzen diren jarraibideak.

Liburutegia dinamizatzeko ardura hartzen duenak bateratze puntuak bilatu behar ditu irakasleekin, irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko jarduerak elkarrekin egiteko.

Liburutegian egingo diren irakurketa-jarduerak askotarikoak eta erakargarriak izan behar dute, irakurleak motibatuzko xedez; eta era askotako taldekatzeak egiteko aukera eman behar dute.

Liburutegi-arduraduna, irakasleekin lankidetzan, askotariko xedeei erantzungo dieten jarduerak proposatzen saiatuko da, betiere haiek testuinguru batean txertatuta. Jarduerak, bestalde, hainbat hizkuntzatan eta euskarri baten baino gehiagotan egingo dira.

Ekimenak eta jarduerak

Liburutegiaren esparruan, irakurzaletasuna garatzeak eskatzen du irakurketa liburutegi-arduradunak bideratzea, irakasleekin elkarlanean. Hartara, jarduerak hauek proposatu eta kudea ditzake:

- Gelako liburutegiak sortzen lagundu. Horretarako, liburuak hautatuko ditu eta aldiro eguneratuko. Gelan, hainbat jarduerak egin daitezke, hala nola liburuak aurkeztu eta, bat hautatuta, ikasleei hautaketaren zergatiak azaldu, irakurzaletasun txatalak irakurri eta ikasleak gainontzekoa irakurtzera animatu...
- Ikasleei eta irakasleei ikastetxeko liburutegi-funtsaren nobedadeen berri eman. Horretarako, estrategia hauek erabil daitezke:
 - Ahozko aurkezpenak egin material berriak ezagutarazteko
 - Liburutegian toki finko bat prestatu azken nobedadeak erakusteko.



Intef, Irudien bankua

- Familientzako eta irakasleentzako informazio-buletina idatzi, hilero esaterako, eta posta bidez helarazi edo ikastetxeko web gunean ikusgai jarri...
- Solasaldi literarioak antolatu liburutegian, aldiro, eta modu sistematikoan.

Solasaldi literarioak

- Ulermen kritikoa garatzea, gogoeta sustatzea eta elkarrizketa bultzatzea da solasaldi literarioen helburua.
 - Liburutegi-arduraduna da moderatzailea.
 - Ikasleak dira irakurketa dialogikoaren protagonistak.
 - Liburutegi-arduradunak bost bat testu (liburu) aukeratzen ditu, taldearen ezaugarrien arabera.
 - Taldeak, aurrez aurkeztutako liburuetako bat aukeratuta, hurrengo saiorako orrialde kopuru jakin bat irakurtzeko konpromisoa hartzen du.
 - Irakurleak testua irakurri eta atentzioa eman dion paragrafo edo testu txatalen bat aukeratzen du.
 - Hurrengo saioan, hautatutako pasarteei buruz hitz egiten dute irakurleek; talde handian azaltzen dute zergatik hautatu duten pasarte hori.
 - Eztabaidatu egiten da irakurritakoaz. Denek hartzen dute parte, iritzi guztiak dira baliagarriak.
 - Moderatzaileak zaintzen du parte-hartzaileen interakzioa, bata bestearekiko errespetuz jokatzeko dutela bermatzeko.
- Topaketak antolatu idazleekin edo irudigileekin, haien liburuez aritzeko. Topaketari behar besteko garrantzia eman behar zaio, eta, horrenbestez, ondo prestatu behar da: liburuari buruzko iritziak bildu, liburuak sorrarazitako sentimenduak eta gogoetak adierazi, idazlearekin edo irudigilearekin egingo den saiorako galdetegia denen artean prestatu...
 - Bultzatu parekoen artean liburuak gomendatzeko jarduerak. Horiexek izaten dira, sarritan, jarduerarik eraginkorrenak; izan ere, ikasleek interesen unibertso bera partekatzen dute. Gainera, liburuak aurkezteko duen ikasleak ideiak laburtzeko, azalpenak emateko eta ahoz adierazteko gaitasuna garatzen du. Gomendioak aurrez aurre egin daitezke edo internet bidez.
 - Askotariko gaien inguruko erakusketak egin hainbat irizpide edo xederen arabera: idazleen edo irudigile jakin baten liburuak, jai ospakizunen edo egun seinalaturen bat, efemerideak, inguruko kultura-ekitaldiren bat, hedabideetako albiste nabarmenen bat...



Saio bat idazlearekin

- Efemeride eta egun berezi batzuetan, jarduerak garatu ikasgelan gutxiago jorratzen diren alderdiak lantzeko. Gainera, eskola-elkarte osoak har dezake parte eta, hala, jarduera motibagarriagoa bihurtu:
 - Euskararen Nazioarteko Egunak aukera ematen du literatur testuak irakurtzeko eta entzuteko, errezitaldiak antolatzeko...
 - Bioaniztasunaren Nazioarteko Urteak, esaterako, aukera ematen du desagertzeko arriskuan dauden animalia espezieak mundu-mapa erraldoi batean kokatzeko; ura aurrezteko aholkuekin informazio horma-irudiak egiteko; edo energia berriztagarrien inguruan aritzeko...



<http://astiliburuak.ikasblog.net/>

- Bakearen Egunak, berriz, aukera ematen du gatazka eta gerra bizi dituzten herrialdeetako protagonistak dituzten liburuak aurkezteko...

- Irakurritako testuak moldatzeko eta berrerabiltzeko proposamenak bultzatu: bertsoak gutun bihurtu, ipuinen amaierak aldatu, komikietako elkarriketak beste egoera baten arabera moldatu.¹⁸
- Boz gora irakurri askotariko testuak, era askotako euskarrietan. Irakurtzeko era honek ondo planifikatuta egon behar du, bai guneei, bai denborari dagokienez; eta ikasleen intereseko testuak proposatu behar dira. Gomendagarria da ikastetxetik kanpoko pertsonak ekartzea.

Boz gorako irakurketa

- Jarduera hau liburutegian egiten da.
 - Liburutegi-arduraduna eta irakaslea dira arduradunak.
 - Liburutegi-arduradunak aukeratzen ditu testuak.
 - Irakasleak irakurketa adierazkorra egiten du.
 - Irakurketak 10 -15 minutu irauten du.
 - Irakurketa eten egiten da gertatuko denaren inguruko hipotesiak egiteko, emozioa, irrika eta interesa sorrarazteko.
 - Entzutea eta irakurtzen segitzeko nahia sortzea da helburua.
- Testuak irakurri eta dramatizazioak, errezitaldiak eta antzezpenak egin, testuetara modu kooperatiboan hurbiltzeko.



Ipuin kotalari saioa ikastetxean

¹⁸ Elena Laiz Sasiain, "Gelako esperientzia bat: errezetak", *Jakingarriak* aldizkaria: <http://www.mondragon.edu/es/actualidad/files/aldizkariak-revistas/jakingarriak/pdf/Jakingarriak64.pdf>.

Familia eta ingurua

Irakurtzeko zaletasunak, oinarrian, irakurketaren esperientzia bikarioa du, hau da, besteren bitartezko esperientzia, irakurle trebeek irakurtzeko gai ez direnei irakurtzea, alegia, testuak deszifratzen ez dakitelako edota testuak bakarrik ulertzeko gauza ez direlako. Horregatik, errazago sendotuko da irakurzaletasuna irakurtzea ohikoa den eta era askotako testuak (liburuak, aldizkariak, egunkariak, testu digitalak...) irakurtzen dituen familia giroan.

Bestalde, ikastetxean parte har dezaketen kanpoko erakundeek bultzatutako ekimenek ere lagun dezakete irakurzaletasuna garatzen, batez ere, familiei eta ikastetxeari esku-hartzeko aukera ematen bazaie.

Atal honetan, orientabideak eskaintzen dira eta jarduerak eta adibideak aurkezten dira ikastetxearen, familiaren eta inguruaren arteko lan partekatua sendotzeko.

Irakurzaletasuna sendotzeko, behar-beharrezkoa da **familien eta ikastetxeen arteko lankidetz**a. Horregatik, ikastetxeak inplikatu egin behar ditu familiak helburu hori lortzeko egiten diren irakurketa-jarduera guztietan. Tutoretza-bilerak, tutorearekin egiten diren banakako bilerak, ikastetxeko informazio-orriak eta jakinarazpenak baliatu daitezke ikastetxean egiten diren ekimenen inguruko informazioa eman eta familiei laguntza eskatzeko, bai irakurzaletasunaren inguruko ekimenak antolatzeko, baita ekimen horiek garatzeko ere.

Ikastetxeari dagokio, liburutegiarekin batera, **familiekiko lankidetz**a proposamenak garatzea eta antolatzea, bai eta haiei eskolan esku-hartzeko aukera ematea ere.

Ikastetxeak jakin behar du zer-nolako baliabideak eskaintzen diren inguruan, eta parte hartu behar du ekimen horietan eta haiek baliatu. Horrez gain, erakundeei laguntza eska diezaieke baliabide materialak eman ditzaten eta ikastetxean bultzatzen diren ekimenetan parte har dezaten.

Ikastetxeak, horrez gain, inguruko erakundeek eskaintzen dituzten **kultura ekimenen berri eman behar die familiei**, eta baliabide horiek erabiltzera bultzatu, eta, hala, esperientzien trukaketa sustatu.

Ekimenak eta jarduerak

Familien partaidetza bultzatzeko eta, ikastetxetik kanpo, erakundeek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzeko, ikastetxeak jarduera hauek egin ditzake:

- Gurasoei lagundu gogoeta egiten seme-alabengan irakurzaletasuna sustatzen laguntzeko duten erantzukizunaz, horretarako orientabideak eman, eta argi eta garbi eskatu haien laguntza.
- Ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, etxean eta familian irakur daitezkeen askotariko irakurliburuen zerrendak prestatu: oparitzeko liburuak, helduek eta gazteek parteka ditzaketen liburuak...
- Tutoretza-bileretan, familiei orientabideak eman, irakurriaren ulermenaren garrantzia azpimarratzeko moduez eta etxean egin daitezkeen irakurketa partekatua praktikatzeko proposak diren jardueraz.
- Irakurketa partekatua bultzatu ikastetxeko eta inguruko beste pertsona batzuekin, Solasaldi Literarioen edo Ikas Komunitateen estrategiak aplikatuz.

Zer egin seme-alabek irakur dezaten?

- Ez behartu irakurtzera.
- Liburuak eskuratzeko aukerak eman.
- Haiekin joan liburu dendetara, liburu azoketara, erakusketetara....
- Liburutegiko bazkide egin.
- Irakurtzea ohitura bihurtu.
- Zalantzak argitu.
- Liburuak aukeratzeko askatasuna eman; libururik ez debekatu.
- Haien adinerako egokiak diren liburuak eskaini.
- Gazteen zaletasunetara egokitu.
- Haiekin irakurri.
- Irakurritako liburuen inguruan hitz egin.
- Ez debekatu aisialdirako beste aukera batzuk.

Familientzako aholkuak



Hernaniko Udal Liburutegiko katalogotik hartua



Gurasoak irakurle. Gurasoekin irakurketak partekatzeko esperientzia

- Ikastetxeko liburutegiarekin lankidetzan, Guraso Elkartearen laguntza eskatu irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak ezartze aldera (materialak erostea, material hautaketan parte-hartzea...).
- Ikastetxeko gune digitala sortu familiekin beren irakurketa-esperientziak elkarrekin parteka ditzaten.
- Inguruko kultura ekimenen berri izan, irakurzaletasuna garatzeko jarduerarik erabilgarri eta interesgarrienak hautatu, eta ikasleen partaidetza eta familien laguntza proposatu.
- Inguruko erakundeek bultzatutako ekimenen berri eman familiei haietan parte har dezaten (udal liburutegiak, liburuekin edo literaturarekin erlazionatutako erakusketak...).

LIBURUTXIKI (0-6) Gurasoak gurasoei liburuak gomendatzen.

Liburutxiak hainbat liburu gomendatzen ditu. Irakurzaletasuna bultzatu nahi duten irakurleak liburutxiaren bidez gurasoen laguntza jaso dezakete. Liburutxi bakoitza gurasoek berez gurasoak liburuak gomendatu nahi dituzte, gurasoak liburuak gomendatu nahi dituzte. Hainbat liburu gomendatzen dira. Hainbat liburu gomendatzen dira. Hainbat liburu gomendatzen dira.

2007-04-13
SPURDETZO BEHURRITZO

IRAKURLEA: JOSÉ LUIS CORTES/AVS

ARGITALETOKIA: S.M. (Pasta sala)

LIBURUPENA: Zazpi Fargosen (purdioa potxolotzaren modukoa) dago hainbat spurdetzo. Jentziak, herregatik, egun batzuk aldi egin zuten spurdetsoak, eta hainbat spurdetsoak gabe galdita ziren. Astea al ditzake? nola

Loturak

- Irakurle gurasoen bloga
- Irakurle gurasoen bloga
- Irakurle gurasoen bloga

Gurasoen bloga

IKASTETXEKO IRAKURKETA PLANA EGITEKO GIDA

Sarrera

Ikasleei irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko, komeni da ikastetxean hartzen diren erabaki guztiak dokumentu xume eta erabilgarri batean jasotzea, betiere kontuan harturik ikastetxeko beste dokumentuetan, hala nola Hizkuntz Proiektuan, Hizkuntz Normalkuntza Proiektuan, Hobekuntza Planean... hartutako erabakiak


Eskola-elkarte osoak onartu eta bere egin behar ditu Irakurketa Planak jasotzen dituen erabaki guztiak. Horregatik, garrantzitsua da prozesua diseinatzea (diagnostikoa, plana egitea, garatzea eta ebaluatzea), eztabaida bultzatzeko, eta, hala, erabakiak hartzen laguntzeko.

Irakurketa Planaren egitura

Irakurketa Planaren helburua da ikasleek irakurtzeko gaitasuna hobetzea, eta irakasleen eta eskola-elkartearen irakurketa-praktikak bideratzen lagundu behar du. Ez du, beraz, dokumentu isolatua izan behar: Ikastetxeko Plan Estrategikoarekin lotuta egon behar du.

Dokumentuaren egiturak honako atal hauek eduki behar ditu:

1. txantiloia erabil daiteke Irakurketa Plana idazteko.




Lanaren antolaketa

Zuzendaritza taldeak hartu behar du lana antolatzeko eta egitekoak planifikatzeko ardura, klaustroa osorik inplika dadin, bai Irakurketa Planaren ingurukoak eztabaidatzen, bai bertan jasotakoak betetzen.

Komeni da hasierako proposamena irakasle lan-talde txiki batek garatzea, eta, ondoren, ikastetxeko beste kideek proposamen horren gainean eztabaidatu eta erabakiak hartzea. Talde hori **Pedagogia Batzordea** izan daiteke, edo ikastetxean dagoen beste lan-talderen bat. Nolanahi ere, ikastetxeko etapa-koordinatzaileek eta departamentu buruek parte hartu beharko lukete, bai eta liburutegi-arduradunak ere.

Irakasleen klaustroak hartuko du jardueren ardura. **Jarduera-arduradunek** haien jarraipena egingo dute, eta Irakurketa Planak biltzen dituen erabakien betetze-maila egiaztatuko dute.



Faseak

1.fasea: praktikaren gaineko gogoeta. Diagnostikoa

Ebaluazio Diagnostikoa, bai eta barruko nahiz kanpoko beste edozein ebaluazio ere, abiapuntu aproposa izan daiteke irakurketaren inguruko elkarlanari ekiteko; eta, hala, ikastetxean egiten diren irakurketa-praktikak aztertuta, alderdi onak eta hobetu beharrekoak antzeman, puntu hauen inguruan:

- Ikasteko irakurketa garatzeko arlo guztietan egiten diren praktika didaktikoak.
- Irakurtzeko zaletasuna garatzeko arlo guztietan egiten diren praktika didaktikoak.

- Ikasteko eta irakurzaletasuna garatzeko eskola-liburutegian egiten diren jarduerak eta hartu diren erabakiak.
- Familien eta inguruko erakundeen parte-hartzeari dagokionez proposatutako jarduerak eta hartutako erabakiak.

Ikastetxeak alderdi horiei guztiei edo bati soilik ekiteko erabakia har dezake, betiere bere beharrianak eta ezaugarriak (tamaina, ikasle-irakasle kopurua...) kontuan izanik. Fase hau bukatzeko, ikastetxeak Irakurketa Planean garatuko dituen lehentasuneko bizpahiru jarduera-esparru hautatuko ditu.

Irakurketa Planak jasoko dituen erabakietan, hobe da lehentasuna ematea helburuen garrantziari eta eraginkortasunari, kantitateari eman beharrean.

Irakurketa lantzeko praktika didaktikoen analisia egiteko, 2. txantiloia proposatzen da.

2. fasea: Irakurketa Plana idaztea

Irakurmena sustatzeko ikastetxeak egiten dituen praktika onak eta hobetu behar dituen alderdiak identifikatuta, eta zein esparrutan jardungo duen erabakita, plan errealista bat zehaztu behar du, ikastetxeko ohiko praktiketatik gehiegi urrunduko ez dena, Eskola-elkarte osoak onartu eta aplika dezan bermatzeko. Hasierako plan horrek moldagarria eta aldagarria izan behar du, unean uneko zenbait aldaketari eta alderdiri egokitzeko. Gutxienez, honako atal hauek islatu behar ditu:

- **Helburuak:** argiak eta zehatzak izan behar dute eta eskola-elkarteko kide gehienak inplikatu. Komeni da, bestalde, gehiegizkoak ez izatea, eta hartara, erraz moldatu, egokitu eta ebaluatzeko aukera ematea.
- **Jarduerak:** zer helburu hautatu den kontuan izanik, hura lortzeko jarduerak proposatuko dira (dokumentu honetan iradokizun eta orientabide gisa bildutakoak zein eskola-elkarteak proposa ditzakeen beste batzuk). Garrantzitsua da aplikazio epe desberdineko jarduerak eta estrategiak proposatzea:
 - Epe laburrekoak, edo berehala gauza daitezkeen jarduerak: arlo guztietan, astero, ordu erdiko irakurraldia egitea.
 - Epe ertainekoak, edo ikasturtean zehar gauza daitezkeenak: hiru hilabeterik behin, literatur solasaldi bat egitea.
 - Epe luzekoak, edo ikasturte bat baino gehiago beharko dituzten jarduerak: liburutegiko liburu-funtsa handitzea.

Jardueretan, bestalde, beste datu batzuk zehaztea ere komeni da:

- Jarduera-arduradunak. Ahal izanik, jarduera bakoitzeko arduradun bat, klaustrokideen inplikazioa bermatzeko.

- Antolaketari lotutako erabakiak: espazioa nola erabili eta denbora nola banatu.
- Jardueren eta ekintzen ebaluazioa eta erabakiak berrikusteko prozedurak.
- Denbora-epeak: lan-egutegia, fasea.
- Giza-baliabideak eta baliabide materialak (ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak).

3. fasea: Irakurketa Plana garatzea

Fase honetan, martxan jarri behar dira ikastetxeak Irakurketa Planean hartutako erabaki guztiak. Komeni da jardueren ardura duten irakasleek, aldiro, ezarritako plangintzaren jarraipena egitea, haren garapena aztertzeke, eta, hala behar izanez gero, aldaketak edota egokitzapenak proposatzeko. Tresna gisa, Ikastetxearen Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko gida dokumentuko 8. puntuko txantiloia egokitu eta erabil daiteke (Urteko Planaren Garapenaren Jarraipena izenekoa).¹⁹

4. fasea: ebaluazioa

Irakurketa Planak ebaluazio prozesua behar du fase guztietan, aurreikusitakoa ondo betetzen dela egiaztatzeke eta, hala behar balitz, jarduerak egokitzeko edo moldatzeko. Halaber, jardueren inplementazio epea amaituta, azken ebaluazioa egin behar da, aurreikusitakoaren betetze-maila aztertzeke. Ebaluazioan, bestalde, komeni da inplikaturako guztien iritziak jasotzea: familiena, planaren garapenean eragin zuzena izan dutelako; irakasleena, Irakurketa Planean jasotako erabakiak eta jarduerak abiarazi dituztelako; eta ikasleena, hartzaile nagusiak izan direlako. Azkenik, ikasleek irakurtzeko gaitasunean duten hobekuntzak berak egiaztatuko du ikastetxearen Irakurketa Planaren baliagarritasuna.

Dokumentu horrek, ikastetxean egiten diren beste agiri guztiek bezala, dinamikoa izan behar du; haren ebaluazioak, beraz, gidalerroak emango ditu aldiro gaurkotzeko eta moldatzeko.

Erabilitako baliabideak, materialak, lan-proposamenak... antolatu, bildu eta eskuragarri jarri behar dira, bai irakasle berriek erabiltzeko, bai hurrengo ikasturteetan ikastetxean berrerabiltzeko.

¹⁹http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-inspcont/eu/contenidos/informacion/comunicaciones_centros/eu_inspec/adjuntos/Pub_EJ_pac_memoria_eusk.pdf.

Txantiloiak

1. txantiloia. Irakurketa Plana idaztea (jarduera-esparru bati lotutako adibide bat)

Arduera-esparrua: lankidetzak familiekin.

Helburua: tutoretza saioetan, familiei irakurketaren inguruko informazioa helaraztea.

Jarduerak	Denbora-epeak eta arduradunak	Baliabideak	Ebaluazioa
Protokolo bat prestatu irakurketaz eta ikasteko duen garrantziaz.	1. hiru hilera Orientatzailea eta tutoreak.	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak.	Prozesua: Protokoloa egin da. Azken ebaluazioa: Protokoloa helarazi zaie familiei.
Zerrenda bat prestatu seme-alabei eskolako lanak egiten laguntzeko aholkuekin.	1. hiru hilera Orientatzailea eta mintegi-buruak.	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak.	Prozesua (...) Azken ebaluazioa (...)
Liburu gomendatuen zerrenda bat prestatu, etxean, familian, irakurtzeko.	2. hiru hilera Mintegi-buruak eta liburutegi-arduraduna.	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak.	Prozesua (...) Azken ebaluazioa (...)
Ikastetxeko webgunean atal bat prestatu eskolako ikasgaiei lotutako irakurgaiak proposatzeko.	Ikasturtean zehar Zuzendaritza taldea.	Baliabideak zehaztu: ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak.	Prozesua (...) Azken ebaluazioa (...)

2.1. txantiloia. Irakurketa-praktiken analisia

Ikasteko irakurri	Curriculumeko arloak	Ikastetxean, ez da hartu inolako erabakirik ikasteko irakurketaren inguruan.	Ikasteko irakurketa garatzen laguntzeko gogoeta egiten hasi gara, baina ez da erabakirik hartu.	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin ditugu.	Arlo guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa.
	Hizkuntza arloa	Hizkuntza arloetan, ez da ikasteko irakurketari lotutako inolako erabakirik hartu.	Ikasteko irakurketa garatzen laguntzeko gogoeta egiten hasi gara, baina ez da erabakirik hartu.	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu dira eta abiarazi egin dira.	Ikastetxean lantzen diren hizkuntza guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa.
	Eskola-liburutegia	Liburutegia ez da erabiltzen programatutako ikas jarduerarik egiteko.	Lantzean behin egiten dira liburutegian ikas jarduerak.	Liburutegia sarritan erabiltzen da ikasteko jarduerak gauzatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia ikasteko jarduerak burutzeko erabiltzen da, irakasleekin koordinaturik.
Irakurzaletasuna garatu	Curriculumeko arloak	Ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik, hizkuntzakoak ez diren arloetan.	Irakurzaletasunari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu.	Irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu, eta abiarazi egin dira.	Arlo guztietan, modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da irakurtzeko zaletasuna.
	Hizkuntza arloa	Hizkuntza arloan, ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik.	Hizkuntzako arloan, egiten dira zenbait jardura, baina hizkuntzen arteko koordinaziorik gabe.	Irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu dira, eta hasi dira Hizkuntzen arteko koordinazioa egiteko ahaleginak.	Hizkuntza irakasgaietan, koordinaturik eta modu planifikatuan, lantzen da irakurtzeko zaletasuna.
	Eskola-liburutegia	Liburutegia ez da erabiltzen irakurzaletasuna garatzeko helburuz programatutako jarduerarik egiteko.	Noizbehinka egiten dira liburutegian, irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerak.	Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurtzeko zaletasunari lotutako jarduerak garatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia irakasleekin koordinaturik erabiltzen da.
Familien parte-hartzea		Irakurtzeko gaitasuna garatzeko laguntzari dagokionez, ez da lankidetzarik sustatu familiekin.	Noizik behin, familiei informazioa helarazten zaie irakurtzeko gaitasuna hobetzen laguntzeko.	Modu planifikatuan eskaintzen dira irakurtzeko gaitasunari lotutako orientabideak.	Familiei orientabideak emateaz gain, parte hartzeko aukera ematen zaie bai ikasgelan, bai liburutegian antolatzen diren jardueretan.
Inguruarekiko lotura		Ez dira kontuan hartzen inguruak eskaintzen dituen aukerak irakurketa bultzatzen laguntzeko.	Noizik behin, kontuan hartzen dira inguruak ematen dituen aukerak irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko.	Inguruan dauden erakundeek eskaintzen dituzten ekimen guztietan parte hartzeko ahalegina egiten da.	Inguruko jardura eta ekimenetan parte hartzen da, eta erakundeek ikastetxean parte hartzea ere bultzatzen da.
Irakurketaren inguruko prestakuntza		Azken urteotan, klastroak ez du irakurketaren inguruko prestakuntzari jaso.	Zenbait irakaslek oraintsu jaso dute irakurketaren inguruko prestakuntza.	Klaustrokide batzuek parte hartu dute irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.	Klaustro osoak hartu du parte irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.

2.2.txantiloia. Irakurketaren inguruko praktika didaktikoen analisia: emaitzak

	Zer egiten dugu ondo?	Zer hobetu behar dugu?
Ikasteko irakurri		
Curriculumeko arloak		
Hizkuntza arloa		
Eskola-liburutegia		
Irakurzaletasuna garatu		
Curriculumeko arloak		
Hizkuntza arloa		
Eskola-liburutegia		
Familien parte-hartzea		
Inguruarekiko lotura		
Irakurketaren inguruko prestakuntza		

Analisiaren arabera, hauek dira ikastetxearen lehentasunezko jarduera-esparruak:

- 1.
- 2.
- 3.

3. txantiloia. Ebaluazioa

	Helburua:			
	Zer neurritan bete da?	Eraginkorra izan da?	Alderdi azpimarragarriak	Hobetu behar diren alderdiak. Proposamenak
1. jarduera				
2. jarduera				
3. jarduera				

BIBLIOGRAFIA GOMENDATUA

- ARELLANO, V. (2002): Liburutegia eta ikaskuntza autonomia. Nafarroako Gobernua. Blitz 3: http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/autonomo_e.pdf (2013ko irailean berrikusia).
- CASSANY, D. (2006): Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea. Argumentos 341. Anagrama, Bartzelona.
- CASSANY, D. (2009): Prácticas letradas contemporáneas (hitzaldia bideoan): <http://www.leer.es/wp-content/uploads/webcast/pagina02.html> (2013ko irailean berrikusia).
- DELMIRO COTO, B. (2003): La escritura creativa en las aulas . En torno a los talleres literarios. Biblioteca de textos, 173. Graó, Bartzelona.
- DURBAN ROCA, G. (2010): La biblioteca escolar, hoy. Un recurso estratégico para el centro. Biblioteca de Aula 273. Graó, Bartzelona.
- EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza Saila (2010). Irakurketaren irakaskuntza: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/RecursosParaLaInclusion/ensenanza_lectura_e.pdf.
- EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza Saila (2009) El profesorado ante la enseñanza de la lectura. Gobierno Vasco, Departamento de Educación.
- GARCÍA ANDRÉS, M.A (2008): Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian. Nafarroako Gobernua. Blitz 11: http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres_files/BLITZamar11eusk.pdf (2013ko irailean berrikusia).
- INSTITUTO DE EVALUACIÓN (2010): La lectura en PISA 2009. Marcos y Pruebas de la Evaluación. 2009. Ministerio de Educación. Secretaría de Estado de Educación y Formación Profesional. <http://www.educacion.gob.es/dctm/evaluacion/internacional/lectura-en-pisa.pdf?documentId=0901e72b8072f8d9>.
- ISEI-IVEI. (2011): PISA 2009 Euskadi. 2. txostena: Aldagaien azterketa eta ikasleen irakurketako emaitzan duten eragina: <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2009/PISA2009-2txostena-aldagaien-azterketa.pdf>.
- NAFARROAKO GOBERNUA HEZKUNTZA SAILA (2010) Irakurketa Hobetzeko Plan Instituzionala: <http://dpto.educacion.navarra.es/materialespiml/inicio.html> (2013ko irailean berrikusia).
- http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado/index.php?option=com_content&view=article&id=444&I (2013ko irailean berrikusia)
- MATA ANAYA, J. (2008): Animación a la lectura .hacer de la lectura una practica feliz, trascendente y deseable. 10 Ideas clave. Graó, Bartzelona.
- MORENO, V.: (2003) Leer con los cinco sentidos. Pamiela, Iruñea.
- MORENO, V. (2003): Zertarako irakurri? Ulertzeko. Nafarroako gobernua. Blitz4: http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres_files/Blitz4ameusk_1.pdf (2013ko irailean berrikusia).

PENNAC, D. (1993): Como una novela. Anagrama, Bartzelona.

SANCHEZ MIGUEL, E. (2010): La lectura en el aula. Crítica y Fundamentos 27. Graó, Bartzelona.

SOLÉ, I. (1992): Estrategias de lectura. ICE 137. Graó, Bartzelona.

ZAYAS, F. (2009): Leer en la red: http://docentes.leer.es/files/2009/05/art_prof_ep_eso_leerenlared_felipezayas.pdf (2013ko irailean berrikusia).

ZAYAS, F. eta PÉREZ ESTEVE, P (2007): Competencia en Comunicación Lingüística. Alianza Editorial, Madril.

Irakurketari buruzko webguneak

Eskola-liburutegiak, ACEX programa: <http://www.profacex.org/acex/bibliotecas.htm>.

Eskola liburutegiko jarduera-karpeta. ACEX Bizkaia. 2008-2009: http://www.profacex.org/docs/wp-content/uploads/actividades_fobe_junio2010.rar.

Eskola liburutegiko gida didaktikoa. ACEX Bizkaia. 2008-2009: http://www.profacex.org/docs/wp-content/uploads/fobe-080616_castellano1.pdf. http://www.profacex.org/docs/wp-content/uploads/fobe-080430_euskera1.pdf.

Fundación Germán Sánchez Ruipérez: <http://www.fundaciongsr.es/>.

Galtzagorri Elkarte: <http://www.galtzagorri.org/euskara>.

Leer.es: <http://leer.es/>.

SOL. Servicio de Orientación a la lectura: <http://sol-e.com/>.

PLEC. Proyecto de lectura para centros escolares: <http://www.plec.es/>.